



**Askotariko herritarrak batzeko eta euskal kantak abesteko ekimena da Berango Kantari.** ▶8

**Musikagune atari digitalak Getxoko musika-banden «erakusleioa» izan gura du, Stereosonik elkarteko Jokin Totorikak azaldu duenez.** ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**104. zenbakia**

2017ko  
**irailaren 28tik**  
**urriaren 4ra arte**

**Ondarearen Europako Jardunaldietan** 22 ekimen egingo dituzte Uribe Kostan; Aldundiak, udalek eta zenbait eragilek elkarlanean antolatu dituzte. ▶11

## Paisaiak bizitzeko deialdia



HERRIAK GETXO

## Irisgarritasuna hobetuz

**Algortako Portu Zaharrea**n igogailu panoramiko bat eraikitzea eta Genaratzuko ibilbidea hobetzea onartu ditu Getxoko Udalak. ▶2



**Gonbidapena: Eguena, 19:30, Azebarri**



**Hirukira Olgetan**

Umeentzako denbora-pasen atala, hilaren akabu honetan. ▶2

**Inkestas Rock jaialdia** egingo dute zapatuan, Sopolako udaletxearen aurreko plazan; bederatzi rock-taldek joko dute. ▶7

**Kultur Leioak prest** dauka udagoieneko egitaraua; 25 ikuskizun egongo dira, guztira, irailetik abendura bitartean. ▶14

**Berangoko Nazioarteko Miliaren** 30. edizioa jokatuko da zapatuan. Urtemuga ospatzeko festa barikuan izango da. ▶18

**Garazi Sanchezek irabazi** ditu Euskal Herriko Surf Txapelketa eta Euskal Surf Zirkuituaren bigarren saioa, Arriateran. ▶19

# Irisgarritasuna hobetze aldera

**Igogailu bat ipiniko** dute Algortako Portu Zaharrean; modu berean, Genaratxu eta Usategi parkea lotzen dituen pasealekua hobetuko dute.



Igogailu berriak irudiko itxura izango du. © GETXOKO UDALA

**A**lgortako Portu Zaharrean igogailu panoramikoak eraikitzea onartu du Getxoko Udalak. Horrez gainera, Genaratxu eta Usategi parkea lotzen dituen pasealekua hobetzea aurreikusi du. Horretarako, 700.000 euroko aurrekontua izango dute eta lanak amaitzeko epea bost hilabetekoa izango da, obrak hasten direnetik. Hala, urtebete barru dena amaituta egotea aurreikusi dute udal-arduradunek.

Igogailuari dagokionez, Erribera kalea eta Portu Zaharreko amaieran kokatuko da, lur-gaineko aparkalekuaren arteko tutuan, orain dela gutxira arte auzoko bizilagunek zarama botatzeko erabiltzen zuten lekuan. 15 bat metro altuko desnibela gaindituko du; panoramikoak izango da, eta 75 graduko inklinazioa izango du. Gehienez, aldi berean, 16 lagun (1.150 kilogramo) sartu ahal izango dira bidaia bako-

tzean. Geraleku bi edukiko ditu, ekipamendu mekanikoak eta goialdekoan 8 metro luzeko eta 2,5 metro zabaleko pasabidea ipiniko da, igogailuko ontziratze-guneagaz lotuko duena. Gainera, espaloi bat eraikiko da, behealdean, zelaigunean, egun eskalinatoraino helitzen denagaz lotuko dena.

Aurrekontu aldetik kopuru handiena du proiektuan jasotako bigarren jarduketak: Genaratxu eta Usategi parkearen arteko oinezkoentzako bidexkaren hobekuntzak. Bide berria 210 metro luzekoa izango da, eta zabalera aldatu izango du, bidexkaren irudiari eutsiko dion zoru egonkortu bat, zoladura naturalizatu bati esker, eta alboak egur-listoiak azkenduko dituzte. Argiztapenari dagokionez, 20 baliza inguru ipiniko dituzte; hori dena sendotuko dute gaur egun dauden argiteria publiko zutabeek eta ipiniko dituzten beste lau zutabe berrik ere bai. ◀

## Benta berriro zabaltzeko bigarren fasea hasi dute

**B**entaraNoa egitasmoaren bigarren fasea hasi zuten joan den zapatuan, irailaren 23an. Gune publikoen kudeaketaren gainean, lau esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten lehenengo saiora hurreratu zirenek; hain zuzen ere, Bartzelonako Casa Orlandairen, Zaragozako Harinera Zgazarren, Bilboko Sarean-en eta Gernikako Astraren esperientziak ezagutu zituzten. Ostean, zalantzak eta ideiak aurkezteko tarteak izan zuten parte-hartzaileek, besteak beste. Joan den urteko urrian hasi zen Benta eraikina berriro erabiltzeko eta kudeatzeko prozesu parte-hartzailea. Ordutik, 95 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. ◀

## Fadura garagardotegi zaharreko eraikina berritzeko aurreproiektua garatu dute

**L**au hilez lan teknikoak eta tailer parte-hartzaileak egin ostean, Fadura garagardotegiaren ekipamendu berria zelako izango den definitzeko aurreproiektua garatu du Getxo Kirolak. Antolatu dituzten tailerretan parte hartu dute gune hori erabiltzen zuten kirol-eremu klubek eta elkarteek; hau da, 2016ko otsailan sute batek eraikinari kalte egin zion arte erabiltzen zutenek. Hala ere, horiez gainera, gizarte- eta kultura-esparruko bestelako zenbait kolektibok ere parte hartu dute prozesuan, eta horien ekarpenak erabili dituzte premiak antzemateko eta bestelako erabilera-aurerak berriak aztertzeko. Aurreproiek-



luz, sute batek kalte egin zion eraikinari.

tuak hala definitzen du ekipamendua: «hainbat gela edukiko ditu, non, aldi berean, erabilera desberdinak garatu ahal izango diren, eta biltegiatzeko guneak, komunak eta sukaldea ere izango ditu». Parte hartu zuten era-

kundeei uztailaren amaieran aurkeztu zioten amaierako txostena; horretan, aipatutakoez gainera, «bigarren solairu partzial bat gehitzeko aukera» aipatzen da, eta ondoren, «handitzea aurreikusten da, osagarriko erabilera eta bestelako erabilera iraunkor gehiago barne hartzeko: enpresa-haztegia, lan-eremu partekatua, prestakuntzarako guneak eta abarrak». Erabiltzen ez zen lursaila zabaltzeko eta plaza publiko bat sortzeko dute, «zuhaitzak eta ahal den landaredi gehiena» mantenduko dituzte. Aurreproiektuan parte hartzeko eta osatzeko lehenengo fase horregaz, «Thinking Fadura. Getxoko Kirol Parke Berria» martxan ipini dute. ◀

**GAURKO**  
1967



**50. URTEURRENA**  
GIZONENTZAKO  
MODA

ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84

**GetxoGas**

GetxoGason  
Euskararekin  
bat!!

Getxo eta Berango artean  
94 430 15 00



Portu Zaharra kalea 35  
48001 Algorta-Getxo  
Tf. 94 468 29 32  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com

**GURE  
ETXEA**  
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

## Getxo



Programa urriaren 5ean hasiko da, Algortako Jabekuntza Eskolan.

## Emakume etorkinek elkar topatzeko

**Emakume Etor-kinen Topaketa** programan izena eman daiteke, urriaren 5a baino lehen. Jabekuntza Eskolan izango dira saioak.

**A**urton ere, Emakume Etor-kinen Topaketa programa egingo dute Algortako Jabekuntza Eskolan; saio denak urritik otsailera bitarteko zapatuetan izango dira. Horietan parte hartu gura duten emakumeek izena eman dezakete Herritarren Arretarako Bulegoetan, e-mailez edo udalaren webgunean; urriaren 5era arte egin ahal izango dute, egun hori barne.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, programa horren helburua da emakume etorkinak laguntzea eta horientzako elkartasungunea eskaintzea; aldi berean, gaur egun dauden eskubideen eta baliabideen berri ematea. Gaine-

ra, osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta norbere burua jagoteko heziketa egin ahal izateko tresnak ere eskaintzen ditu programak; izan ere, emakume etorkinak batzen dituzten gaien gainean berba egiteko lekua da topaketa hori, azaldu dutenaren arabera. Hala, honako kontu hauetaz gogoe-ta egingo dute: zailtasunak, zalantzak, herrimina, poztasuna. Horrez gainera, hartzen dituzten hirian helburu eta amets berriak eraikitze moduen gainean berba egiteko aukera izango dute. Saioak urritik otsailera bitartean egingo dira, zapatuetan txandaka, hau da, batean bai eta bestean ez, 17:00etatik 20:00etara, Algortako Jabekuntza Eskolan (Martikoena kalea, 16. Alangoko ambulatioaren ondoan). Saio guztietan, migrazioak eragindako erronkak modu pertsonalean eta profesionalean bizi izan dituzten bideratzaileak egongo dira. Haurtzaindegi-zerbitzua egongo da, aurrez eskatuz gero. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

## Bueltan da Serifalaris, diseinatzaile grafikoaren topagunea

**S**erifalaris diseinatzaile grafikoaren topaguneak seigarren edizioa egingo du irailaren 29an eta 30ean, Getxon. Topagunean, espezialitate horregaz zerikusia duten 200 bat profesionalen parte hartzea espero dute antolatzaileek. Saio denak Areetako Getxo Elkartegian eta Andrés Isasi Musika Eskolan izango dira. Serifalaris topaguneak «gaur egungo 14 diseinatzaile grafiko aipagarrienak» elkartuko ditu, eta «autonomia-erkidego guztietatik» etorriko diren sektoreko profesionalak egotea aurreikusten da. Aurten, beritasunak izango dira: alde batetik, lau berbaldi nagusi egongo dira; bestetik, umeentzako diseinu-tailer bat egongo da. Hizlari aipagarrien artean honako hauek egongo dira: Pati Nuñez, Diego Areso, Marta Cerdà, Nagore Vitallé, Puño, Ander Soriano, Daniel Solana, Enrique Rivera, Marta C. Dehesa, Miren Lauzirika eta Carlos Magro. ◀

info+: [www.serifalaris.com](http://www.serifalaris.com)

## GetxOnegin! pintxo-lehiaketan izena eman daiteke

**O**stalaritza-lekuek VIII. GetxOnegin! pintxo-lehiaketan izena eman dezakete, urriaren 6ra arte. Lehiaketa azaroaren 18an, 19an, 25ean eta 26an egingo da (zapatuetan eta domeketan), goizetan eta eguerdian. Parte-hartzaile bakoitzak pintxo bakarra aurkeztu ahal izango du; izena euskaraz izatea beharrezkoa da eta 1 euroko salneurria izango du. Epaimahaiak aintzat hartuko ditu pintxoaren zaporea, originaltasuna eta euskararen erabilera. GetxOnegin! lehiaketak sari bakarra emango du, pintxo hoberenarentzat. Halere, hiru aipamen berezi ere banatuko ditu: euskararen erabilerari, barrarik onenari eta pintxo tradizional onenari. ◀



Ez da giro

GERMAN KORTABARRIA IGARTUA

## Txoriak maite ez dituen erregea (ipuin amaitu gabea)

**N**ire ipuineko erregeak ez ditu txoriak maite; bestela ez lizkieke hegoak ebakiko, Joxean Arzek ondotxo erakutsi zigunez. Beterako bereak izan daitezten, hegallik gabeko txoriak baino ez ditu nahi errege honek txoritegian eta, haietakoren bati hegoak hazten hasi zaizkiola sumatu orduko, moztailleak bidaltzen ditu guraizetzarrekin hego berrien arrastorik txikiena ere erauztera.

Bada bertan txori bat, oraingoaren izen bereko errege batek hegoak ebakita han itxi zuena, ez-txori bizimoduarekin ernegatuta, aire libreko askatasuna berreskuratzeko deliberoa hartu duena. Eta, delibero hori hartu bezain laster, hara nondik hegoak hazten hasi zaizkion eta, moztailleak behin eta berriz ebakitzen dizkioten arren, orduan eta indar handiagoz ernatzen zaizkion hegal berriak. Legeen sarean korapilatu dute, gorteko pregoietan iraindu, epaileen mailuz eta borraroen mazoz kolpatu, baina haren hegoak eten gabe doaz hazten eta indartzen.

Beste txori bat ere bada txoritegian, arestiko hegal mozteek zentzatuta edo, erregearekin ondo konpontzea hobetsi duena, hark egunen batean hegoak garatu eta hegaldatzeko baime-na emango diolakoan. Txori hau erregearekin duen kidetasunaz burgoitzen da besten aurrean, berariaz ekartzen dioten zapero partikularra mokokatzen duen bitartean.

Galdera da –galdera batek jartzen baitio amaiera ipuin amaitu gabe honi– zeinek lortuko ote duen lehenago hegoak astindu eta txoriak maite ez dituen erregearen itxilekutik alde egittea: sarean harrapatutako hego indartsuko txori matxinatuak ala, txoritegian gozo, gero eta oilo itxura handiagoa hartzen ari den txori hegal-motzak. Inork lortzen badu, noski. ◀

**IXARTU TALDEA**

Gurekin parte hartu gura baduzu...

- 688.676.188 - 695.750.649
- [ixartu.ixartu@gmail.com](mailto:ixartu.ixartu@gmail.com)
- [www.ixartu.com](http://www.ixartu.com)
- IxartuTaldeaKulturElkartea

**Euskal dantzak**

Adin guztietako taldeak, DOAN - GRATUITO!

4 urtetik gorakoentzat, jubilatuentzat ere bai - desde los 4 años hasta jubilados

**Musika Eskola**

Trikitixa, Panderoa, Alboka, Txistua, Txalaparta, Atabala

Egurek eta orduak norberaren nahiriari egokitukoak - Horarios flexibles

**MATRIKULA ZABALIK!**

prentsa · aldizkariak

**ITXASGANE**

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

BORDATUAK  
EUSKAL JANTZIAK

**AINGARA**

Aurrezki kutxa, 18-48930 ERROMO-Getxo

94 403 89 53 · [www.bordadosaingara.com](http://www.bordadosaingara.com)

Getxo

# Elkartasun-jaialdia

**Abuztuan jasandako lapurretari aurre egitera bideratuko dute jaialdiaren egun osoan lortuko den diru dena.**

**E**lkartasun-jaialdia egingo dute zapatuan, irailaren 30ean, Txorimalo gaztetxeak jasandako azken lapurretari aurre egiteko asmoz. Goizeko 11:00etan ipini dute hitzordua, Algortako Portu Zaharrean, erabakitze eskubidearen alde Itsasoruntz Elkarteak egingo duen ekimenen parte hartzeko. Osteen, gune autogestionatura igoko dira gazte denak, 15:00etan egingo duten bertso-bazkariaren gozatza. Horretarako txartela irailaren 28ra arte salduko dute, 5 euroan, Hator eta Salem tabernetan. Bazkalostean, bingo musikatu egin-



Eraikinaren ondoko kontainerrean zegoena lapurtu dute; horren balorazioa 3.000 eurokoa da.

go dute. Ostera, 20:00etan «euskarakea» egongo da, eta 22:00etan «plater-irekiak»; gau osoan jaia egongo dela iragarri dute. Gaztetxeak hainbat eraso jasan ditu azken hilotan; azkenengoa, abuztuan. Orduan, eraikina-

ren ondoko kontainera apurtu zuten, eta Algortako hainbat eragilek bertan gordeta zeukaten materiala lapurtu zuten «ezzagunek»; gazte-mugimenduko kideek 3.000 euroan zenbatetsi dute lapurtutakoaren balioa. ◀

## Getxo dantzan jartzeko eguna egingo dute urriaren 1ean

**U**dalerriko euskal dantzen talde denak batuko dira Getxon urriaren 1ean, lehenengo aldiz. Izan ere, Getxo Dantzan jaialdia lehenengo edizioa egingo dute egun horretan, Getxoko Malakate parkean. Goizeko 11:00etan ipini dute hitzordua, dantza-talde denei ondoetorria egiteko; ostean, 11:30ean kalejira egingo dute kalerik kale Andra Marin, auzoa alaitzeko asmoz. Jarraian, 12:00etan, Malakate plazara joango diren denen gozamenerako dantza egingo dute hurrengo dantza-talde hauek: Agurrak, Berantzagik, Itxartuk, Itxas Argiak eta Zasi-Eskolak. Arrastian, ostera, dantza-taldeek zein horiek ikusteko aukera izango dute, 16:30etik aurrera. Izan ere, Luhartz musika-taldeak askotariko kanta abestuko eta doinuak joko ditu, plazara bertaratuko diren guztiak dantzan ipintzeko asmoz. ◀

URRIA  
1-15  
OCTUBRE  
2017

XXXV.  
ANTZERKI  
JARDUNALDIAK

# GETXO

JORNADAS  
DE TEATRO

Horiez gain, urriaren 1ean eta 8an (igandeak) **ANTZERKI ARINA**

Además, los días 1 y 8 (domingos) **TEATRO BREVE**

Algortako Kultur Etxea Villamonte. A8

[www.teatrobrevegetxo.wix.com/antzerkiarriagetxo](http://www.teatrobrevegetxo.wix.com/antzerkiarriagetxo)

**06 OSTIRALA /// VIERNES**  
20:00 Utopian  
**LA ZANJA** Caminamos para crecer (castellano)

**07 LARUNBATA /// SÁBADO**  
13:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**HISTORIAS DE UN BAUL** Trotamundos Circo (sin texto)  
20:00 Escuela de Música (Areeta)  
**PLAY OUT** Muriendo de éxito Erre Producciones (cast)

**08 IGANDEA /// DOMINGO**  
13:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**SUPITUKI** Gari Montxo eta Josefontxo (euskaraz)  
18:00 Escuela de Música (Areeta)  
**ILUSIOAREN INDARRA** Hodei Magoa (euskaraz)

**11 ASTEAZKENA /// MIÉRCOLES**  
20:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**REZIKLETAS** Turukutupa (testu barik)

**12 OSTEGUNA /// JUEVES**  
13:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**DJ PORRU** Kiliklon (euskaraz)  
20:00 Escuela de Música (Areeta)  
**UN DIOS SALVAJE** Txalo Producciones (castellano)

**13 OSTIRALA /// VIERNES**  
20:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**ENTRE 4 TIEMPOS** La Glo Circo (danza vertical)

**14 LARUNBATA /// SÁBADO**  
13:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**EIGHT** KriQA-Collective (danza)  
**PRIVOLVA LANDING** Cia. Olatz de Andrés (danza)  
20:00 Escuela de Música (Areeta)  
**EZ DOK HIRU** Tarteán Teatroa (euskaraz)

**15 IGANDEA /// DOMINGO**  
13:00 San Nikolas Plaza (Algorta)  
**KALEAN OTSO, ETXEAN USO** Patata Tropikala (eusk)  
18:00 Escuela de Música (Areeta)  
**NOMADAS** Teatro Paraíso (castellano)

Antolatzaileak / Organizadores

Babesleak / Patrocinadores

## Erando

# Erando! Bonua, domekatik hasita

**Dendetan deskontuak lortzeko** 3.000 bonu banatuko dituzte Kutxabanken udalerriko kutxazainetan.



Kutxabanken kutxazainetan eros daitezke bonuak.

Bigarren urtez, Erandiok bertako merkataritza sustatzeko deskontu-kanpaina egingo du. 15 euroan, 20 euroko erosketak egin ahal izango dira Erandioko 89 establezimendutan, iaz baino 13 gehiagotan. Izan ere, *Erando! Bonua* zabaltzeko, elkarlanean dihardute Alzagako eta Astrabuduko merkatarri-elkarteak, Udalak eta Kutxabankek.

Bonuak domekan bertan banatzen hasiko dira kutxazainetan, eta urri osoan erabili ahal izango dira. Aurtengo beritasuna da ostalaritzako zenbait lekutan ere gastatu ahal izango direla. Dena den, banatuko dituzten 3.000 bonuetakoren bat lortzeko komenigarriena azkar ibiltzea da. Egokiñe Angulo zinegotziak akordura ekarri duenez, iaz hiru astean agortu ziren. ◀

## Astrabuduan zenbait langile protestan, soldata kobratzeko

Zenbait hilabetetan soldatarik ez zidutela kobratu salatu dute Rosón e Hijos SL eta Contratas de Erandio SL enpresetako beharginek, lehengo astean. Enpresa horiek aurretik Astrabuduan izan zuten egoitzan egin zituzten protestak langileek. Horrez gainera, mobilizazio horiekaz bat egin zuen Antikapitalistak elkarte politikoak. ◀



## Udalak milaka euroko isunakaz erantzundio Kalezulo ez ixteari

Joan den barikuan, 200 gazte baino gehiago elkartu ziren Alzagako batzokiaren aurrean, «EAJ, utzi bakean auzolana, konpromisoa eta gazte indarra!» goiburuagaz. Kalezulo gazte-txeak deituta, elkartasuna adierazi zieten herriko zazpi gazteri, Kalezuloko erantzule direlakoan, 1.200 eta 3.000 euro bitarteko udal-isun bana jaso dezaketelako. Bertaratutakoek, isun-prozeduren ohararazpenei erantzuteko, gutun bana utzi zuten Joseba Goikouria alkatearentzat eta Mikel Filgueiras eta Egoitz Bilbao zinegotzientzat. Joan den uztailan, Udalak gaztetxea ixteko agindua eman zien Erandioko Gazte Asanbladari, Kalezulori eta eskaladataldeari. Gazteek ez zuten itxi. ◀

## Olgetan Solas sendi-jolasak indartu dira azken urtean

Olgetan Solas jolas-dinamikan parte hartu duten familien kopurua handitu da. Auzoetako jaietan egiten den ekimenaren gainean, Erandioko Udala Euskara Zerbitzuak balorazio «oso positiboa» egin du. Familien arteko jolas parte-hartzaile horien inguruan, Udalak emandako datuen arabera, berberako 202 sendiek eman dituzte euren datuak Euskara Zerbitzuak euskararen egunean egingo duen zozketan; baina, gehiago izan dira jolasetan murgildu direnak. Dena den, iazko zozketaren datuak alderatuta, %28,7ko igoera egon da: 2016an 157 familia izan ziren. Alzagan (36 familia), Astrabuduan (35) eta Erandiogoikoan (27) egon da parte-hartze handiena. ◀

## Euskara-plan berria, idatzi beharrean

**Euskara-plan berriaren zirriborroa** abenduan izatea aurreikusi du Udalak; parte-hartzea bultzatzeari ekin diote.

Joan den irailaren 21ean, udalerriko Euskara Sustatzeko III. Ekintza Plana (ESEP) ebaluatzeko eta IV. ESEP diseinatzeko parte-hartze prozesua martxan ipini zuen Erandioko Udalak. Horretarako, jendaurrean aurkeztu zuten Aztiker soziologia-ikerguneak egindako txostena: *Euskararen bilakaera Erandion: datu estatistikoaren ustiaketa, 2017*. Horren bidez, 1981. urtetik gaur egunera arte euskarak Erandion izan duen bilakaera ezagutarazi zuten: euskara-gaitasuna, etxeko eta kaleko erabilera eta abarrak. Dabor-

duko, «prozesuaren zuzendaritzan laguntzeko Talde Motorea eratu da», Udalak zabaldu duenez, «Erandioko hainbat esparrutan eragile diren pertsonen osatuta». Aurrerantzean, prozesua Aztikerren aholkularitzaz garatuko da, Udalaren ordezkariaz eta teknikariakaz batera. ESEP diseinatzeko laguntzeko, herritarrek ere parte hartu ahal izango dute, urrian eta azaroan egingo diren lan-saio irekietan. Urrian planaren erronkak identifikatzea izango da helburua; azaroan, ostera, lehentasunak finkatzea eta ekarpenak jasotzea espero du Udalak. Hala, lanaren emaitzak abenduan batuta egotea aurreikusi dute. Udalak proposatutako lan-ildoak betetzekoan, merkataritza, kultura, hezkuntza eta kirola jorratuko dituzte Administrazioak eta euskalgintzak, herritarren laguntzaz. ◀



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA  
Herri-langilea

## Halabeharrezkoa ez zen ezbeharrak

Lehenengoan Erandion izan genuen behargin baten ezbeharrak, inondik ere halabeharrezkoa ez zena. Bertakoek baino ez dakite orain arte zenbat hatz-zati galdu, zenbat zauri larri eta arin izan duten, zein estres maila jasan duten beharlekuan. Etxera osorik bueltatzeko behar besteko segurtasunik bermatzen ez duen beharlekuan behar egitera behartuta beharginak? Beharbada ez. Xabierren heriotza ez zen beharrezkoa tailer horretan segurtasun neurri zorrotzagoak eskatzeko eta ezartzeko. Beharbada ez dugu behar beste egin. Makineria eta instalazioak berritzeko inbertsioen beharrean gara erruleta errusiarrera jokatu nahi ez badugu. ◀

*Iñaki Bitxitegia*

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45 Teltex 1 94 460 27 41  
Algorta

txakoli  
**mota gane**  
txakolina

Leioa-Unbe erreplidea 34  
(Akarlonda parkea) Goleiri-Erandio  
94 467 00 07 - www.txakolimotagane.com

**OSABIDE** Hartz-Klinika  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

Leioa

# Txopoetako jaiak, udalerriko atzenak

**Udaz kanpoko festak** dira Txopoeta auzokoak. Horregatik, Leioako azkenengo jai horiek xarma berezia dute, tenperatura freskoan ospatu arren.



Leioako Udal Musika Bandak zapatuan joko du. © UMORE AZOKA

**B**arikuan hasiko dira Txopoetako Mikel Deunaren jaiak, hilaren 29an; eta Leioako auzoetako urteko jaien denboraldiari amaiera emango diote. Suziriari 18:00etan emango diote su, pregoia irakurri ostean. Ohi den legez, txorizo-jana, pokerra, umeen talentu-txapelketa eta musika ez dira faltako lehenengo egunean; izan ere, gaueko 11:00etatik aurrera, Oh Juliette omenezko taldearen ekimenez, Platero y Tú taldearen doinuak hedatuko dira auzunera. Zapatuan ere, askotariko menua egongo da: gastronomia-lehiaketa, umeentzako jolasak, azeri-ehizaren jolasa, Txopolinpiadak, Leioako Udal Musika Banda eta Sukar musika-taldearen emanaldiak. Egun horretako Txop Chef sukaldaritza-txapelketan parte hartu gura dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Domekan, berri, dantza-erakustaldia, puzgarriak eta meza egongo dira, besteak beste. ◀

## Ekitaldi batzuk

### Irailak 29, barikua

**18:00** Pregoa eta txupinazoa.  
**18:15** Txorizo-jana.  
**18:30** Txikientzako tailerrak.  
**18:30** VI. Poker-txapelketa.  
**22:00** Umeentzako talentu-txapelketa.  
**23:00** Oh Juliette taldearen kontzertua.

### Irailak 30, zapatua

**11:00** III. Txop Chef lehiaketarako izen-ematea.  
**11:50** Azeri-ehiza jolasa, txikientzat.  
**17:00** Umeentzako Txopolinpiadak.  
**19:00** Leioako Musika Bandaren kontzertua.  
**22:00** Umeentzako mozorro-lehiaketa.  
**23:00** Dantzaldia, Sukar taldeagaz.

### Urriak 1, domeka

**11:00** Mikel Deunaren omeneko meza.  
**11:20** Txikientzako puzgarriak.  
**16:00** Mus-txapelketa.  
**17:00** Tortilla-lehiaketa eta sari-banaketa.

## Langabeentzako dozena bat ikastaro

**Leioako Behargintzak prestakuntza-ikastaroak** antolatu ditu, «udalerriko langabetuak lan-merkatuan sartzen laguntzeko».

**L**eioako Behargintzak hamabi ikastaro antolatu ditu irailetik eta abendura bitartean, 185 pertsonarentzat. Oraindino, izena eman daiteke horietako batzuetan: ile-apaindegiko laguntzailea izateko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria; IKT ikastaro bi, hastapen-urratsak oi-

narrizko informatikan, biak; lana bi-latzeko tailer bi; industria-pintura; merkataritza eta marketina eta merkataritza-jarduera osagarriak; orga-jasotzailea; oratoria eta programazio neurolinguistikoa; eta ekintzaileen-tzako enpresa-kudeaketa eta sorkuntza. Behargintzako teknikariek azaldu dutenez, «hilerio hil horretako eta hurrengo hileko ikastaroetan izena eman ahal izango da aurretiaz». Internetez egin daitezke izapide denak. Modu berean, Mendibil kaleko bulegora joan daiteke inskripzio-orria betetzera. ◀

info+: behargintzaleioa.net/eu

## Urriaren 3an hasiko da Perseo zineforuma

**B**ueltan dira Perseo zineforumeko kideak, «urrian eta azaroan zinema onaz gozatzea aukeran izan dezagun», aurreratu dutenez. Urriko zikloan, «apustu sendoa» egingo dute: herrialde arabiarak eta Iran. Hala, zinema persiarraz gainera, Egiptoko, Marokoko eta Tunisiako filmak ikusi ahal izango dira; pelikula denetan «gaurkotasun handiko gaiak» aurki daitezkeela azaldu dute antolatzaileek. Urriaren 3an estreinatuko da Perseo, *The Salesman* filmagaz; Asghar Farhadi zuzendaria irandarrak lan horregatik irabazi zuen aurtengo Oscar saria, ingelesez besteko film onenaren atalean. Farhadik uko egin zion festibalera joateari. ◀

info+: Cineforumperseo.com

## Denon Artean, umeak hezten laguntzeko

**F**amilien eta eskolen arteko elkar-lana indartzeko, Denon Artean ekimenean behar egiten segituko du Leioako Udalaren Hezkuntza eta Par-taidetza Sailak, hasi berri den 2017-2018 ikasturtean. Udalak Ongizatea elkartegaz batera jardungo du, ikastetxe publikoetan hezkuntza-komunitatearen kontzientzia sendotzeko asmoz. Aurton, programa hori Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailatan gartuko dute. Besteak beste, Denon Artean egitasmoaren bidez bilatuko dute umeak dituzten hezkuntza-arloko beharretan laguntza emateko eta ondoan egoteko erreferente komunak sortzea guraso, irakasle, laguntzaile eta bestelako eragileren artean. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO IKASTOLA**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
 94 464 23 64/94 464 33 07  
 info@betikoikastola.net  
 www.betikoikastola.net

**Berbaldun**  
 EUSKARAZ EGIN DEZAGUN

ANIMATU PARTE HARTZERA - LOTSARIK GABE PRAKTIKATU GUREKIN

berbaldun.leioa@gmail.com  
 t. 688 850 129


## Sopela

# Rock-doinuak, entzunbide

## Inkestas Rock jaialdia

egingo dute zapatuan, hilaren 30ean, Udaletxeko plazan; umeez ere hainbat jarduera izango dituzte.

**B**arraks Promotion elkarteak hamabigarrenez egingo du Inkestas Rock musika-jaialdia; Sopelako Udalaren eta Dark Matter Booking kontzertu-bultzatzailearen laguntza jaso du horretarako. Aurtengo hitzordua, zapatu honetan izango da, irailaren 30ean; betiko legez, Udaletxeko plazan. Kontzertuak 17:00etan hasiko dira. Denera, 9 rock-banda entzun ahal izango dira: batzuk, bertokoak; beste batzuk, gure mugetatik kanpokoak. Ohi den legez, emanaldiez gozatzeko ez dago sarrera ordaintzeko beharrik, denak doakoak izango dira eta. Aurtengo edizioa



Herriko eta kanpoko musika-taldeek joko dute. © SOPELAKO UDALA

«kartelari» edo talde-eskaintzari «orekatua» iritzi diote antolatzaileek. Ondoko musika-banda hauek parte hartuko dute: Mars Red Sky, Adrift, Rise To Fall, Late To Scream, Knives, Wreck Totem, Container, Song Of Anhubis

eta Baltzak. Horrez gainera, umeentzako hainbat jarduera egongo dira. Hala, neska-mutilek margotzeko eta musika-tresnak jotzeko aukera izango dute, 12:00etatik 14:00etara arte, Sopelako udaletxeko plazan. ◀

## Jostailuak batzen ditu Sopelako ludotekak, oraindino ere

**S**opelako udal-agintariak gogorara zi dutenez, Kurtzio kultur etxeko ludotekak urte osoan jostailu-batzea egiten du: mozorroak, mahai-jolasak, panpinak eta egurrezko jostailuak batzen dituzte, besteak beste. «Umeez zein gurasoek etxean gura ez dituzten jostailu horiek beste aukera bat izan dezaten ahalegintzen gara; herriko umeen gozamenerako balio dezakete», azaldu dute ludotekako arduradunek. Bateren batek interesa izatekotan, ludotekara eroan beharko ditu jostailuak. Astelehenetik barikura arte zabalik dago, 17:00etatik 20:00etara; eta, zapatuetan, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Ludotekako arduradunek egiten dute jasotako jostailuen aukeraketa, eta bakoitza dago-kion gunean ipintzeaz ere arduratzen dira. Adin tartea 0 eta 12 urte bitartekoa izango litzateke. ◀

info+: 946 569 482 / ludoteka@sopela.eus

## Urte bi eta hiru hilabeteko espetxealdia, piromanoari

**B**ilboko Zigor-arloko 2. zenbakiko epaitegiak urte bi eta hiru hilabeteko espetxe-zigorra ezarri dio 49 urteko gizonezko bati. 2016ko azken hiruhilekoan eta 2017ko hasieran, Sopelako hainbat edukiontzi erretzea eta, horren ondorioz, inguruko autoetan kalteak eragitea leporatzen diote. Gizona urtarrilaren 10ean atxilotu zuten; kartzela-zigorra ezarri diote, kalte-delitu jarraituak egiteagatik salaketa ipini ostean, anomalia edo nahasmendu psikikoen aringarria kontuan hartuta.

Modu berean, prozesuko kostuak ordaindu beharko ditu; horrez gainera, Sopelako Udalarari, Uribe Kostako Mankomunitateari, Garbiker enpresa-



Edukiontzia sutan.

ri, ECOVIDriori, eta Axa aseguru-etxeari ere ordaindu beharko die, erretako ondare publikoetan eta ibilgailu batean sortutako kalteengatik: barbarako gurata isiotutako hainbat sute izan zen 2016an, Sopelan; sute horiek zarama, papera eta beira batzeko edukiontzi-tan eragina izan zuten. ◀

## Sinadura-batze bi, udal-kudeaketaz kexatuz

**E**gunotan, zenbait sinadura-bilketa abiarazi dituzte *Change.org* web-gunean, Udalaren eta alkatearen kudeaketaz kexatuz. Batean, Sopelako umeentzako parkeak «behingoz» konpontzea eskatu diote Udalarari; daborduko, 1.000 sinadura baino gehiago daroatzate. Bestean, «kargua uzteko» eskatu diote Gontzal Hermosilla agintari sopeloztarrari (69 sinadura). Lehengo galdeketa inguruan, Artatza, Gernika eta Balearen parkeak berritzera 200.000 euro inguru zuzenduko dituela esan du Udalak. Modu berean, Errekagane, Urgitxieta, Lizarre eta Sopelmar inguruetakoa jolaslekuak konponduko lituzkete. Bigarrenari dago-kionez, alkateak ez du ezer adierazi. ◀

## Genero-ikuspegitik egindako *La novia* filma, urriaren 5ean

**G**eneroaren ikuspegitik egindako film bat eskainiko du Itzartu emakumeen elkarteak, urriaren 5ean, egunean. Egun horretan, Paula Ortizek zuzendutako *La novia* (2015) pelikula ikusi ahal izango da, 18:00etatik aurrera, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia gaztelaniaz izango da; sarrera, doan. Federico García Lorca (Espainia, 1898 – Espainia, 1936) poeta, narratzailea eta antzerkigile andaluziarraren *Bodas de sangre* (1931) antzezlanean oinarrituta dago *La novia* pelikula. Gorripamen bat aipatzearen, aktore sekundario onenaren Goya saria irabazi zuen Luisa Gavasa Moragonek (Espainia, 1951), film horretan egindako interpretazioa dela eta, 2015ean. ◀

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

**ARTOLOZAGA**  
**Tailerrak** ANAIK  
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Sopelan**  
Gatzarrine z/g  
94 676 00 13  
94 676 38 14  
www.talleresartolozaga.com

**Sestaon**  
Miguel Servet, 6  
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

**BOSCH**  
Service  
Car Service

## Euskaraz olgetan jardutea aukeran, domeka honetan

**A**urton ere, Sopelako Udalak bat egin du Uribe Kostako Mankomunitateak bultzatutako Euskaraz Olgetan ekimenagaz. Hala, irailean eta urrian, domeketan, askotariko jarduerak antolatuko dituzte, 12:00etatik 14:00etara, Larrabasterrako Urgitxieta plazan (euria bada, Kurtzio kultur etxean). Barbarako artearen eta naturaren gaineko jolasak egingo dituzte domekan, urriaren 1ean. ◀

## Berango



Askotariko auzokideak batzen dira Berango Kantari egitasmoan. © BERANGO KANTARI

# «Herria bizitzea guztiz garrantzitsua da»

**Berango Kantari egitasmoa** indarrez beteta dabil. Joan den martxoan ekin zioten abesteari, kalerik kale, udalerrri osoan. Kantatzeaz gainera, taldearen helburua da herriko adin eta izaera ezberdinetako bizilagunak batzea eta elkar ezagutzea.

TESTUA: IKER RINCON MORENO

**P**asa den martxoan batu zen lehenengo aldiz Berango Kantari. Harrezkeroztik, 7 aldiz elkartu dira, udalerriko erdigunea eta auzoak kantuz alaitzeko. Berangoztarrak batzeko eta ondo pasatzeko tresna da ekimena. Hurrengo hitzordua irailaren 29an ipini dute, 20:30ean, frontoian.

## Zer da Berango Kantari?

Beste hainbat herritan indarrean da goen mugimendua da. Leku askotan daude halako taldeak, normalean abesbatzetan ez dauden jendeagaz osatutakoak. Izan ere, bada kantatzea oso gustukoa duen jendea, eta mota horretako taldeek elkartzeko eta hori egiteko aukera ematen dute. Kalean elkartzen gara, leku eta ordu finko batean, eta kantatzen hasten gara.

**Diotenez, euskaldunok oso gogoko dugu kantatzea... Kalean abestearen tradizioa berreskuratu gura duzue ekimen horregaz, ezta?**

Horixe da, bai. Berangon ere jendea elkartzeko eta kantatzen hasteko aukera bazegoela uste genuen, askori gustatzen zaigulako abestea. Hori argi zegoen, baina ez zegoen herrian tresnarik jende hori dena batzeko eta elkarren artean euskaraz kantatzeko. Hala, pertsona bi hasi ziren proiektua martxan ipintzen, eta jendeagaz berba egin ostean, apurka jendea batzen hasi zen. Berangoztarrak elkartzeko eta herrian mugimendua sortzeko baliagarria da Berango Kantari. Herri askotan bezala, urteak igaro ahala, hainbat gauza pasatu dira hemen; horregatik, antzinako haserreak alde batera uzteko eta denak batzeko tresna dela uste dugu; atzeko kontuak alde batera uzteko eta ondo pasatzeko tresna da.

**Zenbat lagun batzen zarete?**

Lehenengo egunean harrিতa gelditu ginen; ez genuen pentsatzen hainbeste lagun batuko ginenik. Lehenengo egunetik 50 lagunetik gora elkartu izan gara. 28 abesti zituen 50 liburuxka atera genituen egun hartan, eta 10 minutuan bat ere barik gelditu ginen. Bigarren edizioa atera genuen ondoren, eta hori ere agortu egin da. Orain, kantutegiaren liburuxka potoloagoa atera gura dugu; 100 abesti baino gehiago izango ditu. Pausotxo bat aurrera egin nahi dugu horrekin, jendearen iradokizunak kontuan hartuta.

**Zer-zelako jendea batzen zarete?**

Askotarikoak batzen gara: nagusiak zein gazteak; kolore askokoa da.

**Zer da beharrezkoa parte hartzeko?**

Kantatzeko gogoia izatea, besterik ez. Nolabait, berangoztarrek barneratuta

dute gure hitzordua: hileko azkeneko barikuan, 20:30ean, frontoian. Hala ere, hainbat auzok osatzen dute Berango; hori dela eta, hiru hitzorduan behin auzoetatik egiten dugu ibilbidea, auzoetan ere mugimendua sortu ahal izateko. Kalejira modukoa egiten dugu, tabernaz taberna, eta nahi duenak parte har dezake Berango Kantari egitasmoan.

**Zein kanta abestu ohi dituzue?**

Oso argi genuen kantatzeko elkartuko ginela, baina, betiere euskalgintzan oinarrituta. Hortaz, euskarazko abestiak hartu ditugu, zaharrak zein gaurkoak. Bertoko txikiteroek beti kantatu izan dute; baina, denetarik, berbarako mexikarrak eta habanerak. Gu, ostera, euskal kantetan oinarritzen gara, alaitsuak eta erritmoa dutenak, denak.

**Kantatzeaz gainera, bestelako jarduerarik egin duzue?**

Ez, beno, jaietan bazkari bat antolatu genuen, baina, besterik ez. Orduan 120 lagun batu ginen, eta oso harro gaude! Jaietan parte hartu behar genuela argi genuen, eta santodomien-goetan, abuztuaren lehenean, ausartu ginen. Kantatzeaz gainera, herri-bazkaria egin genuen elizako arkupeetan. Nolabait inflexio-puntu bat izan zen hura, indarra hartzekoa. Gainera, bertso bat atera genuen egun hartan. ◀

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



**TABERNA**  
Santa Eugenia Kalea 13  
ERROMO



## Plentzia

# Senidetzearen aldeko batzordea



Askotariko jarduerak egiteko proposamenak hausnartzen dabil batzordea.

**Placentia eta Plentziaren** senidetzearen gaineko jarduerak garatzeko batzordea osatu dute.

Joan den abuztuaren 17an batu zen Placentia-Plentzia Senidetze Batzordea. Udalbatzako talde politiko guztiek parte hartuko dute horretan; baita Arantxa Renteriak eta Sabino Laucirica Villalabeitiak ere; lehenengoa, Placentia Museoko pre-

sidentea da; bigarrena, hiribildu bien arteko harremanaren ikerlaria. Horiez gainera, Isabel Findlay Uriartek ere parte hartu zuen bileran, Gorlizen bizi den kanadarra da bera, eta bere semea ere bertan izan zen. Senidetzearen gaineko hainbat gaiez jardun zuten, berbarako horri lotutako atal bat sortzea udal-webgunean, berbaldi informatiboak egitea, herrialde bietako ikasleen arteko elkartrukea bultzatzea eta udaletxean informaziogune bat sortzea. ◀

info+: [www.plentzia.eus](http://www.plentzia.eus)

## Gorliz

## Askotariko tasei aurre egiteko

**OHZ, zarama-batzea eta** estolderia-tasak ordaintzeko laguntzak urriaren 27ra arte eska daitezke; betebeharrak eskuragarri daude.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ), zarama-bilketa eta estolderia-tasak ordaintzeko laguntzak eskatzeko epea zabalik du daborduko Gorlizko Udalak. Aipatutako laguntzak «errenta-maila txikia duten udalerriko familia-unitateek» eska ditzakete. Hala, 2016ko urteari dagozkion ordainagiriak aurkezteko epea urriaren 27ra arte egongo da zabalik, egun hori barne. Oinarri-arauak zerzelakoak diren jakin gura duenak eskuragarri dauzka Herritarren Arretarako Zerbitzuan eta udal-webgunean.

Gorlizko Udalak jakinarazi duenez, laguntza horiek ez dira bateragarriak

izango helburu bera duten beste laguntza batzuek, berbarako GLLetako mantentzea. Horrenbestez, GLLetako mantentze-laguntzaren bat jaso duten familiek aurten ezin izango dituzte laguntza horiek eskatu. Azaldu dutenez, aurtengo diru-laguntza horien gehieneko kreditu erabilgarria 20.000 eurokoa izango da. Laguntzok emateko prozesua lehiaketa bidezkoa izango da. Diru-laguntza bakar bat emango da familia-unitate bakoitzeko, eta horren diru-sarrerak kontuan hartuta zehaztuko da zenbatekoa.

Eskariak udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkez daitezke; gainera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira. Laguntzen ebazpena udal-webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean ipiniko dute. ◀

## Artisautza eta diseinua nagusi izango da aste-akabuko azokan

Uda sasoia atzean utzita, udagoie-nean murgildu gara bete-betean. Hori dela eta, urtaro berriari ondoetorria egiteko asmoz, Udazkeneko Azoka egingo dute aste-akabu honetan. Merkatu berezia irailaren 30ean eta urriaren 1ean egingo dute, Ontziola plazan. Artisautza eta diseinua izango dira nagusi egun horietan. Lehenengo eguneko ordutegia 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:30era artekoa izango da; gainera, 17:30etik 18:30era bitartean eskulanak eta aurpegi-margotzea egongo dira. Domekan, goizean bakarrik egongo da zabalik, 11:00etatik 15:00etara. ◀

## Pintura-lehiaketako obra denak ikus daitezke, oraindino

Joan den irailaren 16an egin zuten aire zabaleko pintura-lehiaketaren 13. edizioa Plentzian. Hiru kategoriatan banatuta egon zen txapelketa eta, horretara aurkeztu ziren zortzi nagusi, gazte bi eta lau ume, guztira; helduetako batak ez zuten lanik aurkeztu. Helduen artean 3 sari banatu zituzten, gazte biek *ex aequo* jaso zuten saria, eta 30 euroko bonu bana eman zieten lau umei; sariak egunean bertan banatu zituzten. Aurkeztutako obrak ikusteko aukera izan ez zutenek horietaz gozatu ahal dute dute oraindino, horiek denak ikusi ahal izango dira eta udaletxeko Erlojuaren Aretoan, urriaren 15era arte. ◀

## Esaera Zaharren lehiaketa egingo dute, zapatuan

Atsotitzen jaialdirako atzerako kon-taketa hasi da. *Zorteak jantzi, zorteak erantzi* goiburua gaz, zapatuan egingo dute Plentziako Esaera Zaharren lehiaketa, hilaren 30ean. Parte hartu gura izan dutenek irailaren 25era arte izena eman ahal izan zuten, eta zapatua arte izango dute 60 esaera zahar ezagutu eta buruz ikasteko denbora.

Lehiaketa 11:00etan hasiko da, Eleiz plazan. Ostean, poteoa hasiko dute kalez kale, zenbait ibilbidetan banatuta; horietan puntu gehien batuko dituztenek finalurrekoa jokatuko dute bazkalostean. Han, Xabi Paya eta Jone Uria bertsolariek kantatuko dituzten bertsoek zein esaera zahar gordetzen duten igarri beharko dute lehiakideek. ◀

## Urduliz

## Plater-tiroketako jardunaldia egingo dute zapatuan

Urdulizko Ehiza eta Arrantza Klubak plater-tiroko jardunaldia antolatuko du irailaren 30ean, zapatuan. Elortza-Buru tiro-zelaian izango da saioa, goizeko 08:30etik aurrera. Horretan parte hartzeko, alde zuretik izena ematea beharrezkoa da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 50 tiratzaile

onartuko dituzte, gehienez. Hala, tiraldi irekian parte hartu gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Otera, bertokoen tiraldiko prezioa 10 eurokoa izango da. Tiratzaile bakoitzak 25 plateren aurka tiro egiteko aukera izango du, azaldu dutenaren arabera. ◀

harremanetarako: 645 700 743

**aldai**  
Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

**JUAN MARI**  
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA  
94 464 41 25

Uribe Kosta

# Beldur Barik Jarrera! lehiaketa

**Matxismoaren aurkako artelanak** sarituko ditu *Beldur Barik Jarrera!* ikus-entzunezko lehiaketak. Uribe Kostako 12 eta 26 urte arteko gazteek izena eman dezakete. Erandioztarrek aukera bikoitza izango dute.



Sari nagusia 500 eurokoa da. © EMAKUNDE

**B**eldur Barik programak antolatuko du *Beldur Barik Jarrera!* ikus-entzunezko lehiaketaren 8. edizioa. Egitasmo horren helburua da «emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea», Emakundek gogorarazi duenez. Lanek honako jokabide eta jarrera hauek islatu beharko dituzte: errespetua, berdintasuna, askatasuna, autonomia, erantzukizuna eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoa.

Ekimen horretan, 12 eta 26 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan bizi edo ikasten badute. Parte hartzeko kategoria bi finkatu dituzte: adingabe-koena eta adinez nagusikoena. Parte hartuko duen taldean adinez nagusiko kideren bat egonez gero, taldea kategoria horretan lehiatuko da. Lanak azaroaren 13ra arte aurkeztu ahal

izango dira, gaueko 00:00ak arte, ia edozein formatutan: flashmob-ak, errezitatutako poemak edo kameraren aurrean irakurritako hausnarketa-testuak, bideoklipak, fotografiak, fotomuntaketa, fonobelak, lipdub-ak, dantzak, film laburrak, animaziozko proiektuak, proiektuen edo artelanen aurkezpenak, performanceak, hiriren esku-hartzeak eta abarrak.

Kalitate teknikoa edo artistikoa baino lehenago, mezuaren kalitatea balioetsiko dute: nesken ahalduzko gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka.

Lehiaketa orokorraz gainera, ohi den legez, Erandiok bertoko sariketa antolatu du. Epe eta arau denak egitasmo orokorraren berberak dira, eta sariak bateragarriak dira. Abenduaren 15ean egingo dute sari-banaketa. ◀

info+: [Beldurbarik.org/eu](http://Beldurbarik.org/eu)  
berdintasuna@erandio.eus / 944 175 616

## Eta herri-galdeketen itaunak izango dira...

**Erandion eta Leioan** iragarri dituzte, daborduko, zeintzuk izango diren datorren herri-galdeketen itaunak, azaroaren 5ean.

**A**zaroaren 5ean, herri-galdeketa egingo ditu Gure Esku Dago (GED) Berangon, Erandion, Getxon eta Leioan. Gure Esku Dago herri-ekimenaren bertoko taldeek aspaldi hasi zuten prozesu parte-hartzaile bana; daborduko, Erandioko eta Leioako plataformak heldu dira azken-au-

rreko urratsera: hautetsontzietan bai ala ez erantzuteko itauna aurkeztera, alegia. Pasa den zapatuan ekitaldi jendetsu banagaz zabaldu zituzten galderak; «Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?» galdetuko dute Leioan azaroaren 5ean. Erandion, honako galdera honi erantzun beharko diote: «Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa gure kabuz eta aske erabakitzea?». Getxoko GEDek, ostera, urriaren 1ean aurkeztuko dute galdera, Algortako Telletxe plazan, 13:00etan; Kataluniaren aldeko kontzentrazioa egin ostean. ◀

## Zapatuan, bidegorria aldarrikatuko dute

**B**ilbotik Itsasorako IV. Martxa egingo du Biziz Bizi elkarteak, zapatuan, irailaren 30ean. Hitzordua goizeko 11:00etan ipini dute, Bilboko Kale Nagusiko foru-jauregiaren aurrean. Elkartearen asmoa da «martxa aldarrikatzailea eta alai» egitea. Izan ere, Bilbo, Erandio, Leioa eta Getxo udalerriak batuko lituzkeen itsasadarreko bidegorria «behingoz egin dadila» eskatuko dute, Aldundiak 2003-16 *Txirrindularitza-planean* jasotakoari jarraituta. Salatu dutenez, «urteak dira plan hori ez dela gauzatzen. Bilbo Handiko mugikortasun iraunkorraren garapenean zutarri izan behar zuen egitasmoa ezereza bilakatu da». ◀

info+: [Bizizbizi.org/eu](http://Bizizbizi.org/eu)

## Plentzian anbulantzia gura du PPK

**L**urraldeko anbulantzien «zerbitzuak pairatu duen narriadurekiko» kezka agertu du Bizkaiko PPK. Raquel González Bizkaiko PPrentesidentearen eta Getxoko zinegotziaren arabera, Uribe Kostan egoera okerragoa da, lan-karga handia egonda, gero eta anbulantzia gutxiago ei dagoelako. PPK zenbait bilera egin ditu partaide diren langileen ordezkariakaz, eta atzeman dute egoerak okerrera jozuela Urdulizko ospitalea zabaltzean. Adierazi dutenez, ordura arte Plentzian inguruari zerbitzu egiten zion anbulantzia Urdulizera bideratu zuten; baina, geroztik, «denboraren %90 aktibatu barik dago». Hutsunea Getxotik bete behar izaten dute. ◀

**Uribe Kostako AEK**  
**ZATOZ GUREKIN!**

Leioa · 944 64 60 63 · [lamia@aek.eus](mailto:lamia@aek.eus)  
Getxo · 944 30 47 34 · [lauaxeta@aek.eus](mailto:lauaxeta@aek.eus)  
Plentzia · 946 77 36 07 · [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)  
Gorliz · 946 77 36 46 · [jentilbaso@aek.eus](mailto:jentilbaso@aek.eus)

[www.aek.eus/blogak/uribekosta](http://www.aek.eus/blogak/uribekosta)  
[www.facebook.com/uribekostako.aek](https://www.facebook.com/uribekostako.aek)

**aek**  
euskarra praktikoa

**% 100**  
**AFEKTIBOA**



EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA



Burdin Hesira bisita egin ahal izango da urriaren 7an.

# Paisaia biziaz gozatzeko

**Ondarearen Europako Jardunaldietan** 22 ekimen egingo dituzte Uribe Kostan; udalek, Aldundiak eta zenbait eragilek antolatuta. Aurtengo gaia *Paisaia bizia* denez, lurraldearen ikuspuntutik jorratuko dute ondarea.

**U**ribe Kostak bat egingo du Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dituen Ondarearen Europako Jardunaldiak, aurtun ere bai. Oraingoan, Bizkaiko paisaien eraikuntzari begirakoak izan dira jardunaldiok. Irailaren 30etik aurrera eta urri osoan, hainbat jardueratan parte hartu ahal izango da Barrikan, Berangon, Erandion, Getxon, Gorrizen, Leioan, Plentzian eta Sopenan. Gainera, Bilbon egingo diren zenbait egitasmo ere interesgarriak izango dira uribekostarrentzat. Denetik egongo da aukeran: bisita gidatuak, erakusketak, ipuin-kontaktak, ibilaldiak bizikletaz eta oinez, zientzia-jardunaldiak, berbaldiak eta abarrak. Hala, Bizkaian egingo diren 276 ekintzetatik 22 izango dira Uribe Kostan edo uribekostarrentzat egokiak; denak doakoak izango dira. Irailaren 30ean eta urriaren 1ean hasiko dira jardunaldiak, zapatuan eta domekan, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean;

landare-azoka eta bisitaldi gidatuak izango dira. Bertan arboretuma dago: hezteko, jolasteko eta biodibertsitatearen alde egiteko asmoz sortutako parke botanikoa. 2007an zabaldu zen eta 130 espezieetako zuhaitzak dauzka, bai autoktonoak, bai mundu osokoak. Bost Kontinenteetako Landareen azokan ezagutu ahal izango da.

**Denetik egongo da aukeran: bisita gidatuak, erakusketak, ibilaldiak, berbaldiak eta abarrak**

Berangoko Berangoeta kultur etxean egingo dute hurrengo ekimena: Burdin Hesiaren gaineko *Hormigoizko paisaiak* argazki-erakusketa ikusi ahal izango da, urriaren 2tik 31ra. Modu berean, hilaren 7an, gidatutako bisita egingo dute Sopenan eta Berangon oraindino geratzen diren hondarreta-

ra eta Burdin Hesiaren Oroimenaren Museora. Bestalde, Getxo udalerrian egingo dira ekimenen gehiengoa. Bertan izango dira *Betiko Getxo* ibilbide gidatua, bizikletaz; eta hurrengo bisita gidatu hauek: *Begoña jauregia denboran*, *Kostaldeko Getxo*, *Bizkaia Zubia*, *Bolueko hezegunea*, *Paisaia generoak zeharkatuta* eta *Getxoko Malakateak*: *Elorrietako ponpatze-estazioaren garroak*. Gainera, familientzako ipuin-kontalarien saio bi egingo dituzte: bata, Begoñako galerietan; bestea, Portu Zaharrean. Gorrizen ere, bisita gidatua izango da urriaren 5ean eta 6an, bertako badia, dunak, ospitalea, foru-abeletxea eta Fauna Sendatzeko gunea ikusteko eta bisitatzeko. Aurretik izen-ematea bete beharko dute interesdunek. Barrikan ere bisitak egingo dituzte: Muriola hondartzara eta Arambaltza aztarnategira, urriaren 14an eta 28an; itsaslabarrak, flysch-geruzak, panoramika eta induskatze-prozesua ikusteko. Aurretik izena eman beharra dago. Horrez gainera, parte-hartzaileek aukera izango dute Bilboko Arkeologi Museoan Barrikako indusketa-material arkeologikoak ikusteko. Horrez gainera, itsasadarretik txango bat egitea ere aukeran egongo da, urriaren 5ean. ◀

info+: Bizkaikoa.bizkaia.eus/jep



## Ekimen batzuk

### Irailak 30 eta urriak 1

**Erakusketa eta azoka:** Arboretuma eta Bost Kontinenteetako Landareak. Leioako campuseko anfiteatroan. 10:00-20:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

### Urriaren 2tik 31ra

**Erakusketa:** *Hormigoizko paisaiak*. Berangoeta kultur etxean. Astelehenetik barikura: 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.

### Urriak 4, eguaztena

**Ibilbide gidatua, bizikletaz:** *Betiko Getxo*, Andra Mari kiroldigitik abiatuta. Erreserba egin beharra dago.

### Urriaren 6tik 29ra

**Bisita gidatua:** *Begoña jauregia denboran*, Algortako Begoña jauregiko galerietan. Urriaren 27an euskarazko saioa izango da, 12:30ean. Erreserba egin beharra dago.

### Urriak 7, zapatua

**Bisita gidatua:** *Bizkaia Zubia*. 11:00etan, Areetan. Erreserba egin beharra dago.

### Urriak 7, zapatua

**Bisita gidatua:** *Sopelako eta Berangoko Burdin Hesian eta Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa*. Erreserba egin beharra dago.

### Urriak 10, zapatua

**Bisita gidatua:** *Paisaia generoak zeharkatuta*. Ereagako Tamarises Izarra jatetxean lotuko dira. Lekua gordetzea beharrezkoa da.



ERANDIO

## Magia-jaialdia egongo da, hiru egunean

Erandiokoan, Astrabuduan eta Al-tzagan egongo dute Erandioko Magia Jaialdia, hurrenez hurren, irailaren 29tik urriaren 1era bitartean. Denera, zortzi aztik parte hartuko dute festibalean. Hala, ikastaroak egongo dira, hiru auzoetako kultur etxeetan; Balbi eta Imanol Ituño izango dira irakasleak. Horrez gainera, Magipoteoa egongo dute zapatuan, Astrabuduko

Josu Murueta plazan; eta, domekan, Altzagan. Horietan parte hartuko dute ondoko artista hauek: Eduardo Coffman-ek, Txoborrok, Asier Kidam-ek, Erizek eta Tor-ek. Magia eta txikiteoa uzartuko ditu 12:30ak alde-ira hurbileko kale-ikuskizun horrek: jendea tabernaz tabema ibiliko den artean, hureratuko dira magoak lagun-taldeengana, familiengana, bi-

koteengana... eta bertatik bertarako saioa egongo diete. Galak ere ez dira faltako. Zapatuan, bost mago igoko dira Josu Murueta kultur etxeko ohol-tzara; horien artean, Jon Zabal. Saioa 20:00etan hasiko da, eta sarrerak 3 euroan egongo dira. Azkenik, domekan, Altzagako lehengo azoka ikusizuna egongo da, 19:30ean; sarrerak 2 euroan egongo dira. ◀

info+: [www.erandio.eus](http://www.erandio.eus)

PLENTZIA

### Karina Antonelli abeslari argentinarrek tangoak kantatuko ditu

Buenos Aires eta Plentzia arteko bi-daia egingo du Karina Antonelli; bere lurraldeko tangoak abestuko ditu argentinarrek Goñi Portal kultur etxean, barikuan, irailaren 29an. Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrera, doan. Kantaria izateaz gainera, aktorea eta irakaslea da Antonelli; hainbat antzerki-taldetan lan egin du. ◀



© KARINA ANTONELLI

ANTZERKIA

IRAILAK 30, ZAPATUA

#### Bette & Joan

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa  
Descalzos Producciones, Txalo eta Saga  
kompainiakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

AZOKAK

IRAILAREN 28TIK 30ERA ARTE

#### Izakinen Amaierako Merkatua

Denden kanpoaldea | Getxo

Algotrako eta Areetako 79 saltokik parte hartuko dute. Eguenean eta barikuan, goizean eta arrastian zabalduko dute; eta zapatuan, goizez bakarrik.



SOPELA

### Umeei begirako Ozzy filma ikusi ahalko da, urriaren 1ean

Orain dela urte bat, Zineuskadi elkarteak euskaraz aurkeztu zuen Ozzy animaziozko film espainiarra. Kurtzio kultur etxean ikusi ahal izango da, domeka honetan, urriaren 1ean; sarrera, doan. Hitzordua 18:00etan ipini dute. Alberto Rodriguezek zuzendutako filmean, pertsonaia baten ahotsa Asier Hormaza algortarrena da. ◀

### Europeando. Europa munduan. Getxo European

Algotrako kultur etxea | Getxo

E-Civis elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

URRIAREN 1ERA ARTE

#### Elkarrizketa berriak

Torrene Aretoa (Algotra) | Getxo

Getxophoto. Talde-erakusketak. Sarrera, doan. Informazio gehiago: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

#### Pop. Herri-partaidetza.

Etorkizuna hemen da

Torrene Aretoa (Algotra) | Getxo

Getxophoto. Talde-erakusketak. Sarrera, doan. Informazio gehiago: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

GETXO ETA GORLIZ

## ArgiHizkiak: sariak eta erakusketak

Gaur, eguena, ArgiHizkiak lehiaketaren sariak banatuko dituzte, 19:30ean, Azebarri kulturegunean. Erakusketa urriaren 1era arte egongo da bertan; eta urriaren 2tik 15era arteko astegunetan, Gorlizko Sertutxena eraikinean. ◀

LEIOAKO CAMPUSA

## Munduko landareen azoka, Arboretumean

Munduko Landareen III. Azoka egingo dute irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campuseko Arboretumean. Bertan, bost kontinenteetako landareak ikusteko eta erosteko aukera egongo da. ◀

GETXO

## Egur-lanketa eta yoga euskaraz, Egizugaz

Urriaren 12ra arte izena eman ahal izango da Egizu elkarteak antolatutako egur-lantzeko tailerreak. Yoga-ikastarorari dagokionez, irail amaierara arte izena eman daiteke. ◀

info+: [egizugetxo@gmail.com](mailto:egizugetxo@gmail.com)

Ertibil erakusketa ibiltarian pintura, eskultura, grabatua, argazkigintza eta DVD-bideoa jorratzen dituzte. © BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



## Ertibil erakusketa ibiltaria, Leioan

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako arte plastikoen erakusketa ibiltaria Leioan ikusi ahal izango da. Aurton, 83 artistak 120 artelan aurkeztu dituzte; azkenean, 15 sortzaileen obrak aukeratu dituzte erakusketa hori osatzeko. Gazteen sorkuntza bultzatu gura dute Ertibilen bidez. ◀

**Noiz:** Urriaren 3tik azaroaren 5era arte.  
**Ordua:** Asteleheneetik barikura, 10:00etatik 20:00etara arte. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara arte.  
**Non:** Kultur Leioako erakusketa-gelan.  
**Sarrera:** Doan.

**argi  
hizki  
ak** 2017

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
**TESTU LABURREN**  
VI. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

# argihizkiak

**Urriaren 1era arte**  
Algotako Azebarri kulturegunean



JAIAK

IRAILAK 30 ETA URRIAK 1

### Udazkeneko Azoka Ontziola plaza | Plentzia

Diseinuak eta artisautza-produktuak egongo dira. Zapatuan, goizean (11:00-15:00) eta arrastian (17:00-21:00) zabalduko dute; domekan, goizez bakarrik.

BERBALDIAK

IRAILAK 29, BARIKUA

### Transexualidad infantil. Comprender para poder acompañar

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela  
Chrysalis Euskal Herria taldeko Bea Sever-egaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

BERTSOLARITZA

IRAILAK 30, ZAPATUA

### Plentziako VIII. Esaera Zaharren Txapelketa

11:00 | Eliz plaza | Plentzia  
Parte-hartzaileak 11:00etan batuko dira. Eliz plazan, triki-bertsio-poteoa egiteko: bertsoak entzun eta zein esaera zaharri buruz berba egiten duten asmatu behariko dute lehiakideek. Finalurrekoari eta finalari dagokionez, 17:00etan izango dira, Danonizat-gaztetxean, herri-bazkariaren ostean. Informazio gehiago: [esaerazaharrakplentzian@gmail.com](mailto:esaerazaharrakplentzian@gmail.com)

DANTZA

IRAILAK 28, EGUENA

### Una conferencia bailada. Tendencias actuales

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa  
Toni Jodar-egaz. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3-6 euro.

URRIAK 1, DOMEKA

### I. Getxo Dantzan

11:00 | Malakate parkea | Getxo  
Lehenik eta behin, harrera egingo diete Agurra, Berantzagi, Itxartu, Zasi-eskola eta Itxas Argia dantza-taldeei. Ostean, kalejira (11:30) eta dantzaldia (12:00) egingo dituzte. Amaitzeko, Luhartz erromeria-taldeak joko du, 16:30ean.

ERAKUSKETAK

IRAILAREN 29RA ARTE

### Ines Artolazaga Gondraren olio-pinturak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia  
Sarrera, doan.

JAIAK

### IRAILAREN 29TIK URRIAREN 1ERA ARTE Txopoetako jaiak Txopoeta auzoa | Leioa

Askotariko ekitaldiak egongo dira: informazio gehiago: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

IRAILAK 30, ZAPATUA

### Osasun Jaia

10:30 | Erandiogoikoa | Erandio  
Jolasak, tailerrak, puzgarriak eta musika egongo dira. Parte-hartzea, libre.

KIROLAK

IRAILAK 30, ZAPATUA

### Plater-tiroa

08:30 | Elortza-buru tiro-zelaia | Urduliz  
Urdulizko Ehiza eta Arrantza Elkarrekin antolatuta. Gehienez, 50 tiratzailek parte har dezakete lehiaketan. Izen-ematea: 645 700 745

### Orientazio-ibilaldia

10:00 | Tellexe plaza (Algorta) | Getxo  
Itxartu Taldeak antolatuta. Izena ematen duten lehenengo 200 lagunei kamiseta oparituko zaie. Informazio gehiago: [www.itxartu.com](http://www.itxartu.com)

### Berangoko Nazioarteko Milia

16:20 | Gobelalde zirkuitua | Berango  
Berangoko Atletismo Taldeak antolatuta. Irailaren 28ra arte izena eman daiteke. Argibideak: [www.berangoatletismo.com](http://www.berangoatletismo.com)

MUSIKA

IRAILAK 30, ZAPATUA

### Inkestas Rock Festival 17:00 | Udatxeko plaza | Sopela

Mars Red Sky, Adrift, Rise To Fall, Late To Screem, Knives, Wreck Totem, Container, Song Of Anubis eta Baltzak musika-taldeen joko dute. Sarrera, doan.

IRAILAREN 30TIK URRIAREN 1ERA ARTE

### Getxoko Folk Jaialdia Xake plaza (Areeta) | Getxo

Hamar ikuskizun egongo dira Xake plazan. Musika-eskolan, ostera, umeentzako saio bat egongo da. Informazio gehiago: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

ZINEMA

URRIAK 3, MARTITZENA

### El viaje

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa  
Perseo zineforuma. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.



Toni Jodarrek *Una conferencia bailada. Tendencias actuales* dantza-ikuskizuna eskainiko du gaur, eguenean, hilaren 28an. © PAU ROS

## Hurrengo ekitaldiak

### Irailak 28, eguena

**20:30** *Una conferencia bailada. Tendencias actuales* dantza-ikuskizuna, Toni Jodar artistagaz. Gaztelaniaz. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3-6 euro.

### Irailak 30, zapatua

**20:30** *Bette & Joan* antzezlan, Descalzos Producciones, Txalo eta Saga taldeakaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 6-12 euro.

### Urriaren 3tik azaroaren 5era

Ertibil erakusketa ibiltaria, astelehenetik domekara; sarrera, doan.

### Urriak 3, martitzena

**20:00** *El viajante* filma, Perseo zineforumean. Gaztelaniaz. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,5 euro.

### Urriak 6, barikua

**20:30** *El fin de las cosas* dantza-ikuskizuna (estreinaldia). Sarrera: 5-10 euro.

info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

# Udagoienez, Kultur Leioa, prest!

**Kultur Leioak 25 ikuskizun** hartuko ditu irailetik abendura arte; askotariko emanaldiak egongo dira.

**A**rte eszenikoak eta musika dira Kultur Leioaren ezaugarri nagusiak; aurtengo udagoienez, 25 ikuskizun hartuko ditu: bost antzerki-emanak eta lau dantza-saio helduentzat; bost

kontzertu *Arimadun musika* zikloaren barruan; umeentzako antzerki-ikuskizun bi, eta, beste bederatz, familia osoarentzat. Emanakizun nagusiak dira horiek denak; izen handiko artistek eta estatu-mailako zein nazioarte-

ko konpainiek eskainiko dituzte. «Luzuzko egitarau erakargarri eta berri horrek gure udalerriko mugak gainditzeko», adierazi du Ana Lopez Kultur Leioako zuzendariak.

Euskarazko emanaldiei dagokienez, besteak beste, abenduaren 3an, Mikel Urdangarin musikariak *Margolaria* bere azken lana aurkeztuko du. Abenduaren 15ean, berriz, eskola-ja-

zarpenaren gaineko gogoeta egingo du *Tanttakak*, *Soka* antzezlan eskainiz horretarako.

Erakusketak, zinema, lehiaketak, arte-tailerrak, artisautza eta sormena, ipuin-kontalariak, literatura-berbaldiak... Kultur Leioak jardun bizia izango du. Gainera, Aterpe Leioa Gaztegunek eta auzo-gelek ere beste programa batzuk antolatuko dituzte. ◀

Hitza emanda



## Katalunia

*Batean estatua, bestean diada, hitza isilaraziz indar gurutzada, demokrazia versus lege kazikada... gertatzen ari dena horren ESTELA DA!*



**JOSEBA SANTXO URIARTE**  
Bertsolari getxotarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Umeen transexualitatea berbabide izango dute barikuan, irailaren 29an, Sopelako kultur etxean

**C**hrysallis Euskal Herria taldeko kide Bea Sever algortarrak emango du berbaldia bariku honetan, irailaren 29an, Sopelako Kurtzio kultur etxean. Saioa 19:00etan izango da; sarrera, doan. *Transexualidad infantil. Comprender para poder acompañar* dio hitzaldiaren goiburua. Chrysallis Euskal Herria guraso-elkarte txikia da, eta errealitate oso zehatz baten gainean lan egiten du: transexualitate egoeran dauden umeak dauzkate. «Maitasunez eta sostengua emanez, bidea egiten laguntzen ditugu», diotenez. Taldekideen arabera, Chrysallis Euskal Herrian «sentsibilitate politiko eta erlijioso guztietako familiak» daude. «Gure seme-alaben zorientasunaren aldeko borrokan bat egiten dugu», azpimarratu dutenez. Aita-ama hauek «oinarrikotzat» jotzen dute errealitate hori ikusgai egitea, jendarteak ezagut dezan eta, horrela, euren seme-alabak errespetatuak izan daitezten. ◀

## Film bat 42 orduan egiteko lehiaketa, urrian

**U**rriaren 20tik 22ra artean, GetxoExpress film laburren jaialdia egingo dute, bigarren, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Hala, lehenengo egunean, pelikula zer gai jorratu beharko duen azalduko diete parte-hartzaileei; hitzordua 18:00etan ipini dute, Elkartegian (Ogoño kalea, 1, Areta). Une horretatik aurrera, gehienez 25 taldek 42 ordu izango dituzte film labur bat asmatzeko, grabatzeko eta ekoizteko. Proiektuak leku berean aurkeztuko dituzte, azken egunean, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Film labur onenak 1.000 euroko saria jasoko du; bigarrenak, 800 eurokoa. Modu berean, publikoak aukeratutako lanaren egileak 300 euro jasoko ditu. Jaialdian izena emateko epea urriaren 13an amaituko da, edo parte hartzen duten taldeen kopurura helden direnean; esan legez, 25 taldek baino ezin izango dute parte hartu, gehienez, GetxoExpress lehiaketan. ◀

## Oinarriak

### Datak

#### Urriak 13, barikua

Ordura arte egongo da izena emateko aukera. Hala ere, aurretik 25 taldek (2 eta 5 lagun artekoak) izena ematen badute, ez dute besterik onartuko.

#### Urriak 20, barikua

**18:00** Zeren gaineko filma egin beharko duten esango diete parte-hartzaileei, Elkartegian (Ogoño kalea, 1. Areta).

#### Urriak 22, domeka

**11:00-12:00** Filmen aurkezpena, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan.

**18:00** Filmen proiektzioa eta sari-banaketa, Andrés Isasi musika-eskolan.

### Sariak

- Film labur onenari saria: 1.000 euro.
- Bigarren saria: 800 euro.
- Ikusleek aukeratutakoaren saria: 300 euro.

### Informazio gehiago

Helbide elektronikoa: [info@getxoexpress.com](mailto:info@getxoexpress.com)  
Webgunea: [www.getxoexpress.com](http://www.getxoexpress.com)



Zulotik

**ARMANDO  
LLAMOSAS RUBIO**  
Kultura ondarearen teknikaria

## Lehenengo klaseko kulturak eta bigarrenekoak

**K**exaka zebilen lagun bat, Artzain-txakurra lehia-keta antolatu eta promozionatu ondoren, ia-ia hedabide batek ere ez zuen aipatu eta. Ezta bertako prentsa kulturazaleak ere, kezatzan zen laguna. Egia da. Gero eta larriagoa da bertako kultura eta kultura globalaren arteko zuloa.

Duela 50 urte, gustatu ala ez, auzokide batek, bilbotarra izan arren, bertako kultura ikusita zuen. Dantzak nolakoak ziren bazekien, abestiak, hizkuntza eta bertako hizkerak entzunda zituen. Gustatu ala ez, kontaktua zuen herriko moduekin, kultura-ekin... Egun, ordea, herri ertaineko biztanlea bizi liteke herriko kultura ezagutu gabe, ikusi gabe.

Globalizazioa da. Horri esker, kultura bat tokiko bihurtzen da, eta beste bat letra larriko Kultura. Horri esker, kultura batzuen partaideek *palette*, *borono*, *pueblerino*... entzun behar dute; ofizialarenak, aitzitik, kulturako tipoak dira, oso jantzita. Dena den, kultura baten moda, ez da batere fidagarria, Erdi Aroan, arabiarreko erak erabiltzen ziren Nafarroan oso *coul* zelako; gero, Gaztela zen nagusia. XVIII. mendean Frantziak inposatu zuen kultura eta hizkuntza, baita *sifilis* izena ere (frantses gaitza). Orain, ingeles kultura da nagusi, AEBetatik etorri arren. *Lingua franca* eta kultura erraldoi horren azpian, hamaika herriko kulturek (hau da, kulturak) bizirauten dute; ikusle, partaide edo *sufidore*, baina, bizirauten dute.

Horregatik, oso garrantzitsuak dira gure hedabideak, gure kultura eta horren urguilua zabal eta manten dezaten. Hala ere, askoz garrantzitsuagoa, asteburu hauetan bezala, gure kaleetan dultzainak, txalaparta eta herriko dantzariak ikusten baditugu; hargatik, globalizazioa globalizazio, bertan, gure kultura hori baita. ◀

# «Musika-talde getxoztarrek erakusleiho bat behar dute»



Jokin Totorika algortarra da Musikaguneren bultzatzaileetako bat; eskaintzen dituzten zerbitzuak guztiz doakoak direla nabarmendu du.

**Musikagune atari digitala** sortu du Stereosonik kultur elkarteak; horren bidez, Getxoko musika-taldeak ezagutarazi gura dituzte.

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**  
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

**S**tereosonik kultur elkarteak Musikagune doako plataforman izena ematera dei egin die Getxo udalerriko musika-taldee eta musikariei; «horien guztien lana zabaltzeko tresna erabilgarria delako», Jokin Totorika algortarrak azaldu duenez. Datu-base horretan, banden gaineko informazioa, bideoak, argazkiak eta harremanetan ipintzeko datuak ikus daitezke.

### Zer da Musikagune?

Musika-talde batean jotzen duzunean, galduta egongo bazina bezala egoten zara askotan; inork ez zaitu laguntzen. Hori dela eta, Stereosonik kultur elkarte sortzea erabaki genuen zenbait lagunek. Udalerriko taldee eta musikariei aholkuak eta trebakuntza ematea da gure asmoa. Horregaz batera, banda getxoztarrak ezagutzera emateko erakusleiho bat ere beharrezkoa zela konturatu ginen: horrela sortu zen Musikagune. Estiloaren arabera sailkatuta agertzen dira musika-taldeak.

### Zein da atari digital horren helburua?

Getxo udalerriko musika-taldee bultzada eman gura diegu. Berbarako Facebook sare sozialean oso garrantzitsua da argazki ona eta bideoen bat izatea, azken hori «etxean egindakoa» baldin bada ere. Informazioa eguneratuta egotea ere beharrezkoa da; izan ere, behin baino gehiagotan esan ditate: «ez dakit nora deitu behar du dan musika-talde horrekin kontaktatu ahal izateko». Hala, datu-base erabilgarria eskaintzen du Musikagunek.

“Aholkuak eta trebakuntza ere ematen diegu udalerriko bande eta musikariei”

### Musika-talde ezagunak sortu dira Getxo udalerrian...

Bai. 90eko hamarkadan oihartzun handia izan zuen Getxosound mugimenduak. Gaur egun, Udalak 60 banda dauzka zerrendan; gu, ostera, 140 talderekin harremanetan ipini gara. Lagunen bitartez ezagutzen genituen taldeak baino ez dira horiek; eta askoz gehiago daude. Gainera, hainbat estilotako bandak ez ditugu ezagutzen. Folk euskalduna jotzen duten talde asko ei dago... Gure zerrendan daudenak baino askoz gehiago daude.

### Getxok egundoko garaia bizi duela esan duzue. Zertan nabaritu duzue?

Gero eta musika-talde berri gehiago dago udalerrian. Bestalde, tabernetan jotzea errazteko lege-proiektu berri bat lantzen dabilta Eusko Jaurlaritzan; horrek asko lagunduko luke. Hala ere, nabarmendu beharra dago orain arte taberne ez dutela ezelako trabarik ipini bandek bertan jo dezaten; kontua da leku horietan kontzertua ematea legezkoa den ala ez. Ildo horretan, buruan daukagu gorago jotzea: Espainiako Kultura Ministerioari eskatu nahi diogu hori guztia errazteko neurriak hartzea.

### Zein da arazoa?

Banda batek dirutza galduko luke bost musikarik Gizarte Segurantzaren izena eman beharko balute. Zerbitzuen elkartrukea proposatzen dugu: adibidez, ostalariak afaltzeko ematen die musikariei; eta, horren ordez, eurek tabernan jotzen dute.

### Zelan lor daiteke kontzertua antolatu gura dutenek Musikaguneren datubasera sar daitezten?

Rustic Music Fest eta Getxoko Banden Jaialdia ere antolatzen ditugu. Bertan, betiere esaten diegu entzuleei jotzen dabilzan bandak kontratatzea aukeratu daukatela, berbarako ezkontza, urtebetetze edo jai batean jotzeko. ◀

# Albuma



Sanagustinak, abuztuaren amaieran, Altzagana (Erandio).



Paella Eguna, uztailaren amaieran, Getxon.



Andramariak, irailaren hasiera-erdialdean, Urdulizen.



Sanpedroak, ekainaren amaieran, Sopelan.



Santodomingoak, abuztuaren hasieran, Berangon.





Sankristobalak, uztailaren erdialdean, Plentzian.



Asuako jaiak, uztailaren erdialdean (Erandio).



Karmenak, uztailaren erdialdean, Armintzan (Lemoiz).

Ualdia eta herrietako jai nagusiak eskutik heltzen dira Uribe Kostara, urtero-urtero. Orduko beroaldiak akordura ekartzek kalterik egingo ez digula bururatu zaigu, udagoienak astebete eskas duenean. Izan ere, joan den irailaren 22an agurtu berri genuen uda eta azkenengo jaiak oraintsu amaitu dira... Orduko hartan bizi genituenen printzak baino ez dira argazkiok... Eta, ez ahaztu, gehiago gogorazteko, horien bideoak dituzuela HIRUKAren youtubeko kanalean!

# Jairik jai, herriz herri



Sanjuanak, ekainaren amaieran, Leioan.



Sanjuanak, ekainaren amaieran, Barrikan.



Santiagoak, uztailaren amaieran, Gorlizan.



Txapelreggae jaialdia, uztailaren erdialdean, Armintzan (Lemoiz).

# Oinarri-kirola, aldarri



Munduko, Europako, Espainiako eta Euskadiko txapelketen finalistak egongo dira Berangon zapatuan, aurkezpenaz azaldu zuten.

**Berangoko Nazioarteko Miliaren 30. edizioa** jokatu da zapatuan, Gobelaldeko zirkuituan. Urtemuga ospatzeko festa egingo dute barikuan, Berango Antzokian.

**P**oztasuna eta harrotasuna dira Berangoko Nazioarteko Milia antolatzen eta laguntzen duten eragile denek aurtengo aurkezpenaz azaldu zituzten sentimenduak, 30. urtemuga ate-joka da goenean. Josu Hernández antolatzaile eta Berango Atletismo Taldeko (BAT) presidentek akordura ekarri zuten Jose Antonio Landa alkatea zenean milia sortzeko egitasmoa aurkeztu zio-

la, eta Udal osoak eman zion «erabateko babes». Gainera, azpimarratu zuten Cristina Pompa eta Antón Larrababal atletek bete zuten papera.

Hernándezek iragarri zuenez, bariku honetan egongo da 30 urte horietan bizitakoak berriro ere akordura ekartzea, Berango Antzokian 20:00etan antolatuko duten festan. Ohi den legez, BATEko presidentek klubeko talde-lana eskertu zuten, «mi-

lia ez baita kontu pertsonal bat, talde baten emaitza baizik». Hala, errepikatuzkoen pozik baina nekatuta dagoela: «edizio hau izango da antolatuko dudan azkena. Beti diot hori, baina inork ez nau sinisten», argitu zuten. Azkenik, Hernándezek nabarmendu zuten Berangoko milian «eskola-kirolak eta herri-kirolak parte hartzen dutela. Oinarri-kirola sustatzea gura dugu, elitezko kirolak sortzen duen norberak bere buruari begiratzeko ispiluari esker». Hala, harro azaldu zuten BATEk 150 neska-mutilegaz eta 72 federatuzko gaz amaitu zuela pasa den denboraldia: «emaitzarik onena txikitxoak for-

matzea da, eta kirolaren bidez bada, askoz hobeto». Halandaze, ez da kasualitatea klubak bere sariak ematea miliaren egunean bertan, afarian. Etxeko 13 atletak jasoko dituzte BATen oroigarriak. Juan Pablo Arnedo Berangoko udal-idazkariak azaldu zuten urteetan erronka pertsonal gisa izan zuela Berangokoa Estatu espainoleko miliarik onena sailkatzea. Birritan lortuta, aurten errepikatuko dutelakoan dago. Horretarako, atletismoko izar andana ekarriko dute zapatuan Gobelalde zirkuituan jardutera. «Norbaitek proba hori galduko badu, atletismoa gustatzen ez zaiolako izango da». ◀

## Algortako Ibilaldiak, urriaren 12an, plana

**U**rtero legez, datorren urriaren 12an, egunean, Algortako Ibilaldiak antolatuko ditu Itxartu elkarteak. Aurten, XXXV. edizioan, bi ibilbide izango dira: nagusientzat 18,5 kilometrokoa izango da; eta umeentzat eta beren laguntzaileentzat, ostera, 6,5 kilometrokoa izango da. Ibilbide luzea goizeko 08:00etan hasiko da eta neska-mutilena, ostera, ordu bi beranduago, 10:00etan.

Aurten, helduen ibilaldian aldaketa garrantzitsu bat izango da, antolatzaileek nabarmendu dutenez. Orain arteko edizio denetan ibilaldi neurtua izan da, «binaka jokatzeko zena

eta bidean denbora hartzen zen kontrol batzuk zituena. Aurten, berriz, herri-ibilaldia bihurtu da, banaka apuntatu beharra dago eta denborak ez dira kontrolatuko, bai ordea leku batzuetan pasa dela frogatzen duten kontrolak», azaldu dute Itxartukoek.

Izen-ematea doakoa izango da eta modu bi egongo dira hori egiteko. Alde batetik, urriaren 9ra arte Itxartu elkartearen webgunean bete ahal izango da inskripzioa. Beste aldetik, gurago duenak ibilaldiaren egunean bertan izango du izena emateko aukera, Algortako batzokian. ◀

info+: Itxartu.com

## Orientazio-ibilbidea antolatu du Itxartuk

**Z**apatu honetan, irailaren 30ean, Getxotik Orientazio Ibilaldiaren 5. edizioa antolatuko du Itxartu elkarteak, Getxoko Kirolak udal-erakundeagaz eta beste hainbat eragileagaz batera. Horren bidez, elkarteak azaldu duenez, «kirola egingo duzu Getxon ibiliz eta dendetatik, tabernetatik, monumentuetatik eta leku turistikotatik igarotzen zaren bitartean». Hiri barruko ibilbide horretan ez da lehiarik izango eta ez da beharrezkoa izango orientazio-ezagutza berezirik. Beraz, herri-ibilaldia da eta edozein pertsonak parte har dezake. Izena emateko epemuga egun honetan

izango da, irailaren 28an; inskripzioak doakoak dira eta elkartearen webgunean egin daitezke. Ibilaldia 10:00etan hasiko da Algortako Telletxe plazatik eta bertan amaituko da ere; parte-hartzaileek 13:00ak baino lehen heldu beharko dute. Irteeran, mapa eta txip bana banatuko dute. Parte-hartzaileek 27 leku bisitatu ahal izango dituzte, baina ez dute nahitaz denetatik igaro behar izango. Antolatzaileek azaldu dutenez, «gutziz garrantzizkoa» izango da mapa hartzean «estrategia ondo finkatzea, hau da, zein den ibilbiderik onena bisitatu gura diren puntuetatik ahalik eta lasterren igarotzeko». ◀



Yeregik eta Sanchezek iazko argazkia errepikatu zuten Arriateran. © EHSF

## Barrika Surf Klasika egingo dute zapatuan

**A**marratz surf-taldeak antolatuta, irailaren 30ean egingo dute Barrika Surf Klasika txapelketaren 30. edizioa, Barrikako hondartzan, zapatuan. Seigarren urtez, galdutako lagunak oroituko dituzte. Iaz legez, Tomy, Mikro, Julito eta Sabas omenduko dituzte. Aurtengo nobedadea Mario Gazteluk ipini du; berak egindako kartelean eta elastikoen diseinuan «amarrozta-rrok Barrikara aparretan goazenean buruan daukagun lehen irudia islatu gura izan du: eskailerak, uhinak eta 'marrazo-hegal hatxa'», antolatzaileek azaldu dutenez. Azken urteotako emaitza ona ikusita, aurten ere surf-txapelketa, sari-emanaldia eta kontzertua egun bakarrean egingo dituzte, «ahalik eta jende gehien egoteko», Amarratzeko kideek adierazi dutenez. Barrika Surf Klasikan parte hartzeko beharrezkoa da Amarratzeko bazkide izatea, eta eguna da izena emateko epemuga; proba doakoa da. ◀

# Euskal Herrikoa, buruan

**S**opela Kosta Fest ekimenaren barruan, pasa den aste-akabuan jokatu zen Euskal Herriko Surf Txapelketa eta Euskal Surf Zirkuituaren bigarren saioa. Garazi Sanchez getxoztarrak biak irabazi zituen, Arriatera hondartzan. Sanchezek ospatzeko beste arrazoi bat ere badauka: Casablancan

bigarren lotu zenez, Europako QS rankingeko bigarren postura heldu da. Sopelako podiuma osatu zuten Sara Urresti sopeloztarrak eta Janire Gonzalez-Etxabarririk. Urrestik Bizkaiko 16 urtez azpiko Surf Txapelketa irabazi zuen aurreko astean, Bakion. Gizonezkoetan, Alan Saulo brasildarrak irabazi zuen zirkuituko proba; bigarren

izan zen Imanol Yeregi zumaiarrak eskuratu zuen Euskal Herriko txapela, beraz, iazko txapeldun bikotea errepikatu zen. Elkarteen arteko deman, aldiz, Peña Txuri nagusitu zen, atzean zarautzarrak eta Barrikako Amarratz surf-taldea utzita. Bodyboard modalitateari dagokionez, Aritz Larrinaga sopeloztarrak irabazi zuen Opena. ◀

PUBLIRREPORTAJEA

## Familia plan berria: zure alabaren ala semearen betaurrekoak, doan!

**Ikusmenaren osasunean** aitzindari den General Opticak beren-beregi familiei begirako plan bat eskaintzen du.

**Z**ure semeak ala alabak begiak ixten ditu telebista ikusten dagoenean etxean edo arbelari begiratzean eskolan? Begietan azkura duela edo sarri igurzten dituela antzeman diozu, ordenagailuaren aurrean edo etxeko lanak egiten tarte bat daroanean? Liburuak lartxo hurbiltzen du irakurtzeko?

Horiek denak sintomak izan daitezke, zure alabak ala semeak ikusmen-arazoren izan dezakeela adieraz dezakete. Etxeko txikien ikusmena sarri aztertzea

beharrezkoa den prebentziozko neurri bat da, begiak zaintzeko eta ikaskuntzan zailtasunik ez edukitzeko; jakina baita ikusmen kaskarrak eragiten duela hiru eskola-porrotetatik bat. Ez geroko utzi!

Ikasturte hasiera honetan batez ere, gastuek nabarmen egin ohi dute gora (liburuak, eskolako materiala, arropa, eta abarrak); batzuetan, horiek eraginda, gure seme-alabak optikariarengana eramatea atzerarazten dugu. Hori dela eta, egitekoa erraztuz, General Opticak

Familiantzako Plana sortu du. Plana beren-beregi umeak dituzten familiei begirakoa da; zureak erostean, zure alabaren ala semearen betaurrekoak doan lortuko dituzu.

Eskatu hitzordua hurbilen duzuen General Opticaren zentro batean, eta ikusmen-azterketa egingo dizuegu, konpromiso barik. Horretan, gabeziaren bat antzemanaz gero, konponbide erraz bat eskainiko dizuegu: familiako kide nagusi batek betaurreko batzuk erosiz

gero, doan izango dira adin gabekoarenak: umetxoa, umea edo nerabea izan, bere betaurrekoak doakoak izango dira, eta forma eta kolore askotarikoaren artean aukeratu ahal izango dituzte.

Horrez gainera, zuen lasaitasuna helburu, zure betaurrekoek bi urteko apurtze-aseguru osoa izango dute; eta txikienei dagokienez, euren betaurrekoen kristalak aldatu ahal izateko bermea, lehenengo urtean graduazioa aldatuko balitz.



\* Helbete baten betaurreko graduazio batzuk erostea beldia % 30eko diskonturaren (gordetako erabilera gertatzen bada) 150 €-ko diskontu horri ez zaio aplikatuko lehenik beharrezkoak diren arnasari eta/edo leurrei, eskubidea oraino du familiako adingabeek batenzako betaurreko graduazio batzuk doan eskuratzeko lehen erabilketan sartu behar diren ikusmenaren arazoak, izan arazoko lehenengo ikusmenaren arazoak. \*GD 08 \*GD 09 \*GD 10 \*GD 11 \*GD 12 \*GD 13 \*GD 14 \*GD 15 \*GD 16 \*GD 17 \*GD 18 \*GD 19 \*GD 20 \*GD 21 \*GD 22 \*GD 23 \*GD 24 \*GD 25 \*GD 26 \*GD 27 \*GD 28 \*GD 29 \*GD 30 \*GD 31 \*GD 32 \*GD 33 \*GD 34 \*GD 35 \*GD 36 \*GD 37 \*GD 38 \*GD 39 \*GD 40 \*GD 41 \*GD 42 \*GD 43 \*GD 44 \*GD 45 \*GD 46 \*GD 47 \*GD 48 \*GD 49 \*GD 50 \*GD 51 \*GD 52 \*GD 53 \*GD 54 \*GD 55 \*GD 56 \*GD 57 \*GD 58 \*GD 59 \*GD 60 \*GD 61 \*GD 62 \*GD 63 \*GD 64 \*GD 65 \*GD 66 \*GD 67 \*GD 68 \*GD 69 \*GD 70 \*GD 71 \*GD 72 \*GD 73 \*GD 74 \*GD 75 \*GD 76 \*GD 77 \*GD 78 \*GD 79 \*GD 80 \*GD 81 \*GD 82 \*GD 83 \*GD 84 \*GD 85 \*GD 86 \*GD 87 \*GD 88 \*GD 89 \*GD 90 \*GD 91 \*GD 92 \*GD 93 \*GD 94 \*GD 95 \*GD 96 \*GD 97 \*GD 98 \*GD 99 \*GD 100

Zure seme edo alabaren

# Betaurrekoak doan

Telletxe kalea, 7 • GETXO - Kale Nagusia, 10 • AREETA  
gozatu plan honetaz Bilboko gure edozein zentroan

edo aurkitu gertuen duzun zentroa [www.generaloptica.es](http://www.generaloptica.es) helbidean



**General Optica**



Sakonetan hezi dira taldeko jokalaririk gehienak. © LEIOA WATERPOLO



Askartzako gizonen taldea.

## Gabon Kopa barik geratu dira etxeko taldeak

Joan den aste-akabuan jokatu zen Askartzan 27. emakumezkoen waterpoloko Gabon Kopa eta gizonzkoen 28.a. Emakumezko lehiaren bertoko Askartza eta Leioa lehiatu ziren, Madrilgo Moscardó taldeagaz batera. Hala, esperokoa zenez, Leioak eta Moscardók mendean hartu zuten etxeko taldea, 2-16 eta 8-26, hurrenez hurren. Hiruko sariketaren azken partidaren berdinketa apurtu zen, madrildarren alde. Emaitza estua izan bazen ere (11-13), leioaztarrek ezin izan zioten eutsi partidari eta iazko garaipena errepikatu barik geratu ziren.

Gizonzkoetan, Bartzelonako Rubík bere arerio denak hartu zituen mendean Askartzako igerilekuan: Madrilgo La Latina (10-16), Askartza (12-15) eta Bordeleko Saint-Bruno (13-3). Hala, kopa Bartzelonara joan zen; Ohorezko Mailatik jaitsi berriak dira katalanak, eta euren kategoria berreskuratu gura dute. Askartzakoek denboraldia prestatzeko baliatu zuten Gabon Kopa, Rubík izan ezik beste taldeak garaituta. Gainera, emaitzak ez ezik jokoa eta sentsazioak ere onak izan ziren etxeko taldearentzat. Hala, taldeak gogo-aldarteak hobetu du, pasa den denboraldian mailaz jaitsi ondoren. Leioaztarrek urriaren 14an hasiko dute denboraldia, harrobi-talde sendoa eta gazte batez. Askartzaren aurten-go helburua lehenengo mailara bueltatzea da, Javier Cortés entrenatzailearen aginduetara. ◀

# Uretako harrobikoak

**Emakumezkoen Leioa Waterpolo** taldea denboraldia prestatzen dabil, harrobi-proiektua egonkortzeko asmoz.

Leioa Waterpolo klubeko emakumezkoen talde nagusiak urriaren 21ean hasiko du Liga. Etxean egingo du, Horta talde katalanaren aurka. Hala, zazpigarren urtez segidan jokatu du Lehenengo Mailan. Bere historia osoan, zortzigarren aldia izango da maila horretan lehiatuko dena.

Halere, taldea denboraldia prestatzeko saioetan dabil oraindino. Abuztuaren 30ean hasi zituzten entrenamenduak, eta handik hona eskarmentu handiko lehiak bizi izan di-

tzute. Hala, orain aste bi Bartzelonan izan ziren leioaztarrak, Santa Eulàlia klubaren sariketan; bertan, euren lehenengo partidak jokatu zituzten. Sant Feliu, Catalunya, Manresa eta Horta izan zituzten arerio; lau partidatik bi irabazi, beste bat berdindu eta bakarra galdu zuten. Gainera, leioaztarrek partidatan gerra eman zuten, eta laugarren postuan sailkatu ziren.

Ondoren, pasa den aste-akabuan, ohiko Gabon Kopan parte hartu zuten, Askartzako igerilekuan. Izugarriko maila eman zuten baina ez zuten lortu iazko garaipena errepikatzea.

Zapatuan, irailaren azken egunean, osteran, Euskal Herriko Superkopa lehiatuko dira, Zornotzan. Denboraldi-aurrea bukatzeko, lagunarteko partida bi jokatu dituzte Waterpolo 9802 nafarraren aurka. Denboral-

di berrian, Leioako taldeak jarraipena emango die teknikoei eta jokalaririk gazteei. Iaz legez, jokalaririk gehien-go leioaztarra izango da, eta den-denak bizkaitarrak. Izan ere, 15 kideetatik 12 Sakonetako harrobitik atera dira. Hala, Jon Lópezek segituko du taldea zuzentzen, Gorka Sánchez eta Josu Barrenetxea teknikoakaz batera, azken bost urteotan legez. Taldearen helburua da iaz agertutako maila sendoa mantentzea, bosgarren lekua erdietsita; horretarako, etxean jokatu dituzten partidak mendean izan beharko dituzte. Aurreko denboraldian, dema bat baino ez zuten galdu Sakonetan. Halere, leioaztarrek sekulan ez diote uko egin anbizioa izateari, orain dela denboraldi biko hirugarren postuak frogatu zuen legez. ◀

info+: [Leioawaterpolo.com/](http://Leioawaterpolo.com/)



Galtza motzetan

ANA RAMOS SARRIUGARTE  
Kazetaria

## Ikuskizuna Kantauriko ur bitsetan

Kresal usainak eraginda-edo, amaitu berria den arraun denboraldiari egin nahi nioke azpimarra, bikaina izan da-eta.

Nabarmenezkoa da erabat egonkortu den ligak izan dituen maila eta emozioa (eta hurrengo sasoiaren hamar euskal ontzi izango ditugu lehiaren, bost bizkaitar eta beste horrenbeste gipuzkoar). Kontxak aurreikuspen denak gainditu zituen. Arraunlariak lana itzel egin zuten, olatuetan gora eta behera. Batzuetan gobernatu ezinik. Muturreko egoeran tarteka. Bestetan uhinei etekina ateraz, surfariak bailiran. Orio, horren adibide. Arraunnean historia egin duen igandea izan zen. Afizioa egiten duen horietakoa. ◀

## Euskal Herriko Superkopa, leioaztarren dema berria

Zapatuan jokatu da aurtengo Euskal Herriko Waterpolo Superkopa, irailaren 30ean. Hitzordua Zornotzako Larreako kiroldegian izango da, goizeko 09:45etik aurrera. Ekimenean, ohi legez, emakumezkoen eta gizonzkoen sariketak egingo dituzte. Ohiturei jarraituta, emakumezkoen lehiak ezinbesteko derbi leioaztarra izango du: Leioa Waterpolo eta

Askartzaren aurkako partida. Talde bizkaitar bien irabazleak Nafarroa Garaiko WP 9802 taldeagaz edo Bidasoa XXI gipuzkoarragaz jokatu beharko du finala. Gizonzkoen atalean, Askartzak Portugaleteren aurkako derbi bizkaitarra biziko du. Ezkerraldekoak menderatuz gero, Nafarroari edo WP 9802 talde nafarrari egin beharko dio aurre, Superkopa irabazi gura badu. ◀


# hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...  
**eta abantaila askoz goza egizu!**

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

**Non da? lehiaketa**



SARIA

**Producciones Serranoren ekimenez,  
Jennie Abrahamson artistaz gozatzeko  
3 sarrera bikoitz zozkatuko dugu**

Ikasturte berriko Musiketaren zikloko lehen ikuskizunaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, urriaren 3a (martitzena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

**Iraileko saria**  
**GetxoGasori esker, 3 auto-garbiketa programa**



3 auto-garbiketa programa zozkatuko ditugu HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean. Zozketan parte hartzeko, bidali irailaren 30a (zapatua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337.

**Zelan egin HIRUKAlagun?**



**Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: [hiruka@hiruka.eus](mailto:hiruka@hiruka.eus)

## Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

				9	2			
							8	
		2	4	7				
		4		9		1	5	2
		5	1		2			
					6		7	
7	4	3			1			9
	8					5	1	
5						3		

## Soluzioa

9	4	3	7	8	6	1	2	5
7	1	5	4	2	3	6	8	9
6	2	8	1	5	9	3	4	7
3	7	6	9	4	5	8	1	2
8	9	4	2	3	1	5	7	6
2	5	1	8	6	7	4	9	3
1	6	9	5	7	4	2	3	8
5	8	7	3	1	2	9	6	4
4	3	2	6	9	8	7	5	1

## + Guardiako farmaziak, urriaren 4ra arte

### Barrika

**ZULOAGA.** Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716.  
Zapatuan, 09:00-14:00.

### Berango

**EGUIA.** Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360.  
Astegunetan, 09:00-22:00.

### Erandio

**ARRIOLA.** Obieta, 40. ALTZAGA. 944 670 022.  
Zapatuan, 09:00-14:00.

**ARRUTIA.** Obieta kalea, 15. ALTZAGA.  
944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

**DÍAZ.** Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA.  
944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

**GASTEARENA.** Meso, 24-26. ASTRABUDUA.  
944 175 200. Aste-akabuan, 09:00-22:00.

**TEIJELO.** J. A. Agirre, 8 bis. ERANDIOGOIKOA.  
944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

### Getxo

**ALZOLA.** Arene kalea, 4. ALGORTA.  
944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30,  
16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko  
09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta  
22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik  
asteleheneko 09:00ak arte.

**ARISTEGUI.** Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA.  
944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

**BARRENECHEA.** Alango, 7. ALGORTA.  
944 600 043. Domekan, 09:00-22:00.

**ESQUISABEL.** Algortako Etorb., 32. ALGORTA.  
944 602 529. Eguaztenean, 09:00-22:00.

**EZQUERRA.** Ollarretxe, 27. ALGORTA.  
944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

**GARDE.** Iparbide, 7. ALGORTA. 944 305 052.  
Astehenean, 09:00-22:00.

**JIMÉNEZ.** Illetas, 12. ALGORTA.  
944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

**LÓPEZ-LINARES.** Kasune, 10. ALGORTA.  
944 302 632. Astegunetan eta zapatuan,  
09:00-22:00.

**MORÓN.** Bidezabal, 2. ALGORTA.  
944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SARRIA.** Telletxe, 1. ALGORTA.  
944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ARRIOLA.** Amaia, 29. AREETA. 944 805 328.  
Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

**BAYANO.** Ibaigane, 9. AREETA.  
944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00;  
zapatuan, 10:00-22:00.

**ELLACURIA.** Andrés Larrazabal, 5. AREETA.  
944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

**ANDRACA.** Maidagan, 61. GETXO.  
944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00;

zapatuan, 10:00-22:00.

**GALARZA.** Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO.  
944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

**MONASTERIO.** Gorbeia Mendia, 1.  
ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan,  
09:00-22:00.

**NÚÑEZ.** Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA.  
944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

### Gorliz

**ABURTO.** Itsasbide kalea, 5. 946 775 452.  
Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00;  
domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ROMERO.** Itsasbide, 20. 946 128 941.  
Zapatuan, 09:00-13:30; martitzenean,  
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Leioa

**NARDIZ.** Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484.  
Domekan, 09:00-22:00.

**TIEMBLO.** Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191.  
Eguenean eta martitzenean, 09:00-22:00.

**ORTEGA.** Artatza kalea, 8. NEGURIGANE.  
944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00;  
zapatuan, 10:00-22:00.

**ONA.** Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA.  
944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

**SAN ANDRÉS.** Larramendi plaza, 2. PINUETA.  
946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

### Lemoiz

**GONZALEZ.** Portubidea, 7. ARMINTZA.  
946 879 341. Eguenean, 09:00etatik aurrera,  
24 orduz; zapatuan, 09:00-13:45.

### Plentzia

**ARAMBURU.** Erribera, 20. 946 775 301.  
Astegunetan, 09:00-22:00.

### Sopela

**DOLARA.** Sabino Arana, 28. 946 129 547.  
Astegunetan, 09:00-22:00; astehenean,  
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ITURBE.** Iparragirre, 3. 946 764 768.  
Astegunetan, 09:00-22:00.

**ERAZO.** Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA.  
946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00;  
eguztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

**ZUMÁRRAGA.** Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA.  
944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00;  
barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

### Urduliz

**PARAMO.** Aita Gotzon, 9. 946 764 507.  
Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan,  
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

# HIRUKIRA OLGETAN

SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda

## Ametsetan

Ai, ai, ai. Etxeko lanak egiten hasi eta loak hartu du Pelloziri. Matematika-ariketak osatu beharrean, amets gozotan txonbo egin du koitaduak. Pelloziriren ametsean, hau da, hondartzan, gelako bertako bederatz elementu daude. Ikusten dituzu?



## Sudokua

	■		
		■	●
▲	◆		
		◆	

Osatu sudoku biotako lauki zuriak: goikoan, figura geometrikoak marraztuz; behekoan, zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Akorduan izan bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzeko.

3		1	
	2		
		2	
	1		3




## MARIGORRINGOAREN KATARROA

gure Marigorringo, hotzeriak hartuta, koitadua. Bere laguntxoaren inbidiatan, gainera; Hego Amerikara joan ziren eta, eguraldi bero bila (badakizue, hemen udagoiena denean, han udaberria; berton negua, han uda). Marigorringoren lagunak belardi honetan daude, ikusten dituzu? Hamasei dira: erleak amona mantangorriak, kakarraldoak, zizareak, inurriak, euliak, tximeletak, armiarmak.


Udagoienak sarri ez die onik egiten zomorroi. Begiratu zelan dagoen







# Puzzlea

Puzzle osatzeko hamazazpi pieza daukazu, baina, 11 bakarrik behar dituzu. Zeintzuk daude soberan?



# Bikiak

Zazpi irudi hauek denak berdinak direla badirudi ere, bi baino ez dira berdinak. Aurkitu itzazu elkarren kopia diren irudi biak.




HORRA, FERMINTXO OKERTXO, ZURETZAKO PILO BAT KROKETA GOXO. UTZI BEHINGOZ OLGETA TXAKURTXO, ETA ZATOZ, GALDU BARIK, KONTXO!



# Labirintoa

Lagundu txakurrari bidea aurkitzen.

# Lehiaketa Non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

**SARIA**

## Hodei magoaren ikuskizunerako sarrera bikoitza

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Hodei magoa ikusteko 4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu; ikuskizuna urriaren 8an izango da, Areetan.

Sarrera bat lortu gura baduzu, urriaren 3a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: [administrazioa@hiruka.eus](mailto:administrazioa@hiruka.eus) edo 944 911 337



## Sukaldean

# Den-denak asetzeko moduko pizza, Bostak tabernan



### OSAGIAK:

Hanburgesa, tomate-saltsa, txahal urrixa, hirugiharra, oilaskoa, mozzarella-gazta, arrautza, oreganoa eta pizza-orea.

### BOSTAK TABERNA

Obieta kalea, 7. 48950 Altzaga (Erandio)  
Tel.: 946 212 838

U dako giroa eta hondartzak atzean utzi ondoren, Erandioko Altzaga auzoan barneratu gara oraingoan. Kalez kale ibili ostean, Bostak tabernagaz topo egin dugu, udaletxeko plazatik hur. Astea amaitzean dagoenean, bertakoa lagunartean afaltzeko egundoko lekua dela entzun dugu; bokatak, hanburgesak, sandwichak, entsaladak edo pizzak, aukeran. Azken hori hautatu dugu. 7 eta 9 euro arteko pizzak daude; 3 euro gehiago ordainduz gero, XL formatuan har daitezke. 10 zenbakia daroana gomendatu digute, eta horixe eskatu dugu. Askotariko osagaiak dituen pizza dugu eskuartean, den-denak asetzeko moduko mokadua, benetan. Baina, zelan prestatzen dute? Oso erraz! Bertoko tabernariak azal-

du duenez, inguruko okin batek prestatzen du orea, eta gero sukaldean bertan osagai fresko denak gehitzen dizkiote gainean; 7 minutuz labean sartu eta gero, prest izaten dute.

Oraingoan, tabernan bertan bakarrik goza daitezke pizzak eta mokadu horietaz, eguenetik domekara eta jai bezperatan, 20:00etatik 23:00etara. Hala ere, iragarri dutenez, urritik aurrera etxera erorako doako zerbitzua ere eskainiko dute, egun horietan. Hasiera batean, Altzagara mugatuko da zerbitzua, baina, las-ter, Astrabudura eta inguruera zabaltzea aurreikusi dute. Eskerak egiteko telefonoz dei egitea beharrezkoa da; jakinarazi dutenez, tabernaren Facebook orrialdean ikus daitezke aukeran dituzten jaki denak. ◀

## faceguk



### Erreferenduma Katalunian, bai ala ez?

#### MIKEL MORENO

ALGORTA



Katalunian, erreferenduma egi-teari, bai. Izan ere, egia esanda, nik neuk oso argi daukat, hau da, herri bakoitzak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea dauka.

#### IÑAKI ELGEA

ALGORTA



Ez da normala espainiar Estatu egiten ari dena; guztiz de-segokia, basatia eta barkaezina da. Katalanek erabakitzen dutena kontuan hartu behar-koa izan behar da.

#### XABIER BARZENA

ALGORTA



Nik Kataluniarekin bat egiten dut. Nire ustez, pertsona guz-ti-guztiak daukatelako euren etorkizuna erabakitzeko esku-bidea; edo izan beharko lukete, behintzat.

#### AINZANE GOIKOETXEA

ALGORTA



Erreferendumaren alde nago, bai. Uste dut denok izan behar-ko genukeela iritzia emateko eskubidea, eta gertatzen ari de-narekin frankismoaren garaira itzuli garela dirudi.

#### JOSE MARI MARTINEZ

GETXO



Katalanen kontua da hori. Egin behar badute, egin dezatela; eurak dira erabaki behar dute-nak zer egin nahi duten. Estatuak ez luke iskanbilarik sortu beharko.

#### EDURNE BENGOETXEA

ALGORTA



Erreferenduma egin beharko lit-zateke, bai esateko edo ez esateko. Arazoa da, badirudie-la, herriarrek edo herriak era-bakitzen dutenaren beldur dela espainiar Estatu.

### Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua